

# t tipi t tapa

487



**Xabi Torres, Elizondoko alkate berria**

**03**

Ilbeltzaren 6az geroztik, Xabi Torres da Elizondoko alkate berria. Herriaren ordezkari bezala, berak eta bere sei kargodunek buruan dituzten egitasmoak azaldu dizkio **Ttiki-Ttapa**ri.



**Gaztelu erremontista lehen mailakoen artean**

**40**

Iñaki Agirre *Gaztelu* leitzarrak 11 urte daramatza erremonteko bigarren mailan. Berriki, ordea, lehen mailako binakako txapelketa batean azpitxapeldun gelditu da, Ezkurrarekin.

2009ko otsailaren 5a • XXIX. urtea  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



EMAUSEKO TRAPEROAK GURE ZABORRAK BILTZEAZ ARDURATZEN DIRA

**04**

## Ttiki ttikitatik hondakinak nola bereizi ikasten

deskontuak

DENDA HAUTETAN EROSTEAGATIK



OSTARGI Optika • BERA

%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan



TXINELKA Zapata-denda • LESAKA

%10eko deskontua



KIROLAK ZELA

ZELA Kirolak • BERA

%5eko deskontua



MAIMUR Liburu-denda • LEITZA

%10eko deskontua oparitzeko artikuluetan



ZALDUA • ELIZONDO/DONEZTEBE

%10eko deskontua, produktuetan



MENDAUUR Pentsuak • DONEZTEBE

%5eko deskontua (zakurren, katuen...)

SARIDUNAK:

- 1 3 liburu (Elkar): M<sup>a</sup> Cruz Andueza (Etxalar)
- 2 Ezpeler gaiteroak CDa (Fermin Music): M<sup>a</sup> Jose Zaldúa (Elbete)
- 3 Txapela Buruan 2 kamiseta: Ainara Mindegia (Aurtitz) Miren Josune Iturzaeta (Arizkun)
- 4 Pirritx, Porrotx eta Mari Motots lotea: Garbiñe Sarasola (Lesaka)
- 5 Izurdea mahai-jolasa (Urdintxa): Amaia Arretxea (Sunbilla)
- 6 Onddo ta Punto 2 kamiseta: Mariano Ezeberri (Elbete) Joxepa Etxenike (Etxalar)



Donostiako Aquariumerako 2 sarrera: Jaione Bengoetxea (Erratzu)

ORAIN [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA 948 63 54 58



ttipi txartela rekin beti irabazten da!

8 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu asteleheneetik ostiralera 09:00-16:00 Tel: 948 63 54 58

**1 HIRU LIBURU**  
Gau ilunekoak Aizoren atzean Dioramak  
Lote 1  
ekar fundazioa  
www.ekar.com

**2 MANENT BISAI 2 DISKA**  
Lote 1  
www.funbion-e.com

**3 Txapela Buruan**  
KAMISETA  
2 Lote  
www.txapelaburuan.com

**4 NAFARROA DINEZ**  
Kontu kontari jakoa bi liburu, arkatza, pin-a  
Lote 1  
www.nafarroadinez.net

**6 BI KAMISETA**  
Lote 1  
oninart.com  
www.oninart.com

ALTXORRAK eta LAPURRAK  
MAHAI-JOLASA  
Lote 1  
www.ikastola.net

Zure oniztasun txipi txartela zurekin kolaboratu nahi baduzu, mesedez, jar zazu harremanetan TTIPI-TXARTELA FUNDAZIOAREKIN 948 63 54 58 telefonon eduz.

ttipi saskia TTIPI SASKIAren ZOZKETAN JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE Bidali SMSa idatziz TTIPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA 5767 ra



AQUARIUM DONOSTIA S.A. SERBITZUEN  
DONOSTIA 943 44 00 99  
www.aquariumas.com

2 sarrera

Zozketan parte hartzeko epaia: otsailaren 11ra bitartean irabazten direnak otsailaren 19ko aldirian argitaratuko dira. Mezuaren kostua 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak txipi-txapelen fokotagian gordetako dira aurrerantzean izanen diren ekaritzetan berr erabateko. Zuzenketa edo deusbatapeneren bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.

**DATUAK...**

- Ilbeltzaren 6an hartu zuen Xabier Torresek Elizondoko alkate kargua, eta berehala ekin zion lanari. Oraingoz gustura dago postu horretan.
- Elizondoko herria egituratu, parte-hartzea zabaldu eta auzolana indartzea dira alkate berriaren eta sei kargodunen helburu nagusiak.
- Herritar guztien ideiak jasotzeko Herriko Etxeko telefonora (948 581450) deitzeko deia egin du. Herritarren hitzetatik abiatuta, Elizondoren beharrak eurek bideratu nahi dizkiote Udalari.



**Xabi TORRES** *Elizondoko alkatea*

ARGAZKIA: TOTU ITURZAETA

# «Elizondo herri bat dela ikustea nahi dugu, eta egitekoak denonak direla»

**Gurutze PIKABEA**

**Nola igaro duzu lehen hilabetea alkate bezala?**

Ongi. Lanean hasiak gara. Lehendabiziko lana aktak erreparasatzea izan zen, herrian zein eztabaida izaten diren ikusi... Herriko Etxean ordu aunitz sartzen ari gara eta lan aberasgarria da. Herriko aferetan parte hartu izan duten zenbait beteranorekin bildu gara eta herritar aunitzek ere laguntza eskaini digute. Eskertzekoa da, beharko dugu.

**Hauteskunde egunean parte-hartzea %25aren inguruan ibili zen. Ez da hagitx altua...**

Udal hauteskundeekin konparatuz, ez, baina Batzarretan 30 bat lagun izaten direla kontuan hartuz, kontent egoteko parte-hartzea izan zen. Aunitzek ez zekiten ezta alkatea aukeratu behar zenik ere, eta hor ikusten da jendeak zenbaterainoko garrantzia ematen dion horri. Horren harira, gure asmoetako bat, historikoki Elizondon egon den Batzarrea jendearengana hurbiltzea da. Aurpegi berriak sartu gara eta ilusioz eta indarrez beteak gaude.

**Sei kargodun eta denak mutilak...**

Hasieratik elkartu ginenak mutilak izan

**«Elizondoko gizartea sakabanatuz joan da, eta konpromiso kolektiboak atzendu egin dira. Gure erronka hori puskatzea izanen da. Materialki dauden hutsuneei ere erantzunen diegu»**

ginen, baina hasieratik nahi izan dugu neskak hurbiltzea. Hemendik aitzinera ere ahalegin bat egingen dugu emakumezkoak anima daitezen. Laguntzaile bezala badakigu hor edukiko ditugula.

**Sartu orduko aldaketa bat: inauteriak asteburuan izanen dira...**

Aitzineko alkatearekin planteatutako afera da, baina ez da bat-bateko kontua. Asteartearekin egin ohi dena galduz zihoala ikusita, gazte talde zabal batek aspaldi paratu zuen mahaigainean gaia, eta ortziral eta larunbatera pasatzea erabaki da. Dena den, astearteko besta indartzeko ilusioa badago. Arazoa Elizondokoa da eta beraz, astearteak tokiko besta izaten segituko du Baztanen.

**Erran dutenagatik, ekonomikoki ez dabil gaizki Elizondo. Lasaitasuna ematen al dizu horrek?**

Ez, lehenago defizitarekin egona baita. Kontuetan ageri denez, 8.000 euroko superabita dago, baina erne egon beharra dago. Gutxi daramagu alkatetzan, eta dena neurtu behar dugu.

**Zein iritzi duzu Udalak Elizondon egin dituen eta egin nahi dituen obren inguruan?**

Elizondon obra bat dagoenean, elizondar bezala, Udala herriarekin harremanetan jartzea gustatuko litzaidake, gure iduria galdetzea. Proposamenak Udalari herritarrok aurkeztea litzateke onena.

**Zein izanen da zure eginbeharra?**

Herriko bestak, Orakunde, inauteriak, Olentzero, Erregeen Kabalgata, feriak, hilerriaren kudeaketa... Horiek guztiak antolatzea. Eta ohiko lan horietaz gain, Elizondoren alde zerbait gehiago egiten saiatuko gara. Elizondoko gizartea sakabanatuz joan da, individualismo batean sartu gara, eta konpromiso kolektiboak atzendu egin dira. Gure erronka hori puskatzea da, herri bat garela ikustea nahi dugu, eta eginbeharrak denonak direla. Herria egituratu behar da eta hori izanen da betebeharr nagusia. Materialki ere badira hutsuneak, eta horiei ere erantzunen diegu.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Emausen egoitzan dagoen bigarren eskuko jostailuen txokoak piztu zuen batez ere Almandoz eta Zigako neska-mutikoen arreta.

EMAUSEKO TRAPEROEK INGURUKO HONDAKINAK BILTZEN DITUZTE

# Hondakinez beteriko munduan gizarteratzeko aukera baten bila

**Hondakinen bilketa egiteaz haratago, gizartean integratzeko arazoak dituztenei aukera bat ematen dien erakundea da Emauseko Traperoak. Droga, alkohola, lapurreta, kartzela... Mundu horiek ezagutu dituzten pertsonak dira gehienak. Nafarroako Emauseko Traperoen kasuan, 190 langileen %60-70 hala dira. Gizartean bizimodu arrunta egiteko arazoak dituzte, eta horiei aterabide bat emateko sortu zen Fundazioa, Abbé Pierre frantziarraren ekimenez. Emaus izena, berriz, Palestinatik dator; etsitutako batzuek itxaropena aurkitu zuten herriaren izena da. Mundu osoan hedatua dagoen ekimen hau, 1972an ailegatu zen Nafarroara eta duela zortzi urte inguru Doneztebera. Hondakinen bilketa zailtasun horiek dituzten pertsonen aukera bat emateko sistema baino ez da, ekologiarekiko kontzientzia ere barneratua dutelako. Bilketa zerbitzua eskaintzeko lehiaketa irabazi eta Nafarroa osoko 12 mankomunitatetan hondakinak biltzeaz arduratzen dira Emauseko Traperoak. Baztan, Bortziariak eta Malerrekan beirak eta ohiko hondakinak izan ezik, gainerakoak biltzen dituzte, eta Leitza eta Areson neurri haundiko trasteak.**

## Gurutze PIKABEA

Almandoz eta Zigako eskoletako neska-mutikoei Emauseko Traperoek Donezteben nola lan egiten duten azaltzen topatu dugu Josune Makibar, bertako langilea. 40 laguneko ikasle taldea adi-adi dago Josuneri begira. Eta inguruan denetarik: arropak, altzariak, etxe-tresnak, jostailuak, bizikletak, ipuinak, ordenagailuak, koltxoiak, bideoak... Guztiak txukun ordenatuak, batzuk Iruñera eramateko prest eta bertzeak salgai, ohi baino merkeago, noski. Ordu erdiko azalpen eta bisitaren ondotik, ikasleak harrituta. «*Traste zahar hauek horrenbertze balio dutela pentsatzen al zenuten?*», galdetu die Josunek. «*Ez!*», gaztetxoek. Almandoz eta Zigako eskoletakoak bisitan hartu dituzten Baztango azken ikasleak izan dira. Horien aitzinetik, Baztango bertze herrietako ikasleak hartu dituzte. Makibarren hitzetan, «*gustura gelditu dira*».

Maria Dolores Miñana Emauseko bertze langileari otu zitzaion bisitak antolatzea, haurrak birziklapena eta berrerapilpena zein garrantzitsuak diren jabetzeko. «*Lagun baten bitartez, eskola batekin harremanetan jarri nintzen. Eskolan birziklapena lantzen ari zirela-eta, honat etortzea proposatu nien irakasleei, ikasleentzako interesgarria izan zitekeelakoan*», dio Miñanak. Lau irakasle etorri, ikusitakoa gustatu eta orduan hasi ziren bisitak. «*Aunitzetan traste zahar bat ikusi eta horren bizitza horakitzten dela uste dute, baina honat etorrieta konturatzen dira dena birzikla eta berrerabil daitekeela*», dio Makibarrek.

Baztango ikasleen bisitak bukatuta, Malerreka zein Bortziriako ikastetxetatik ere bisitak gustura hartuko lituzketela aitortu digute.

### FUNDAZIO BEREZIA

«*Jendeak botatzen dituen gauzekin eta gizarteak bazterten dituen jendearekin ekonomia jakin bat lortzen dugu*», dio Miñanak. «*Berrerabilitzetik bizi gara, hemen egiten ditugun salmentetatik eta markomunitateekin hondakinak biltzeko ditugun akordioen bitartez*». Lanordua ere desberdinak dira. Egunean 6,5 orduz aritzen dira, eta soldatak denentzat berdinak dira. Langileen arteko berdintasuna izan da Maria Dolores, Josune eta Carlos Peña lankideek azpimarratu dituzten bertze ezaugarria. Emaus Fundazioa sekta dela pentsatzen duenik ere ba omen da, baina, «*ez da inondik ere hala*». Arraza, sexua, kultura edo erlijioa edozein dela ere, lan egiteko eredu desberdin bat baino ez da. Irabazi asmorik gabeko erakundea da eta aurrekontuaren %2 Hirugarren Munduko proiektuetara bideratzen du.

### DATU BAIKORRAK

Baztan, Bortziriak eta Malerrekan hondakin gehienek bilketaz arduratzen dira Emausekoak, eta Leitza eta Areson, neurri haundiko trasteak biltzen dituzte. **Baztan, Bortziriak eta Malerrekan** neurri haundikoen kasuan, 948 451979ra deitu behar da eta etxera joaten dira dohainik trasteen bila. Doneztebeko egoitzan, erraterako, 2008an 2.530 dei egin eta bildutako 330.727 kiloetatik %66 berrerabili ziren. Horietako aunitz Emausekoek Doneztebeko Aparan industrialdean duten egoitzan daude salgai. **Leitza eta Aresoren** kasuan, berriz, 012ra deitu behar da. Leitza, 124 dei egin ziren iaz eta jaso ziren 20.759 kiloetatik %60,18 errekuperatu ziren.

## EMAUSEKO TRAPEROK BILDUTAKO URTEZ URTEZ



### PAPERA ETA KARTOIA

Kopuruak kilotan

	2002	2004	2006	2008
Baztan	177.094	207.358	267.142	306.082
Bortziriak	333.225	410.735	538.122	556.079
Malerreka	100.836	141.913	168.346	207.799



### ENBASEAK

Kopuruak kilotan

	2002	2004	2006	2008
Baztan	58.442	67.049	73.552	85.657
Bortziriak	55.036	65.095	105.738	116.753
Malerreka	21.410	31.736	34.996	56.230

### SUKALDEKO OLIOA - ETXeko HONDAKIN BEREZIAK




\* 2002ko Malerrekako daturik ez dugu, eta 2004ko Bortziriak eta Malerrekakorik ere ez.  
Kopuruak kilotan

	2002	2004	2006	2008
Baztan	1.170	-	5.878	3.347
Bortziriak	1.145	2.475	4.621	5.223
Malerreka	-	-	2.422	3.005

### NEURRI HAUNDIKO TRASTEAK

\* Aresoko datuak barne

Kopuruak kilotan



	2002	2004	2006	2008
Baztan	58.910	85.145	115.630	100.655
Bortziriak	122.905	122.885	185.225	177.051
Malerreka	29.675	64.560	63.148	60.306
Leitza	-	40.350	39.130*	20.759



### SILoETAKO PLASTIKOAK

Kopuruak kilotan

	2002	2004	2006	2008
Baztan	0	11.470	21.088	25.292
Bortziriak	0	1.495	1.236	3.830
Malerreka	0	7.315	12.322	22.388



\* Ez dugu 2002, 2004 eta 2006ko daturik.

### PILAK

Kopuruak kilotan

	2002	2004	2006	2008
Baztan	-	-	-	505
Bortziriak	-	-	-	1.180
Malerreka	-	-	-	190

## ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
[info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitate:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Irtxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugaramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

### 2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Sara (La Poste)	54 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	30 €



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Jaurilaritzako Kultura Sailaren  
laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Eskerrak denoi

Kaiet Andueza Gorostizaren senitartekoek eskerrak eman dizkizue une larri hauetan zuen elkartasuna adierazi diguzuen guztiei.

Eskerrak baita ere, Lesakako Osasun Zerbitzuetako langileei, eta une latz horietan beraien laguntza eman ziguten beste zerbitzu guztiei ere bai.

Muxuak eta mila esker denoi.

Kaieten  
senitartekoak

### Urtarrilaren 1a, otsailaren 2a, martxoaren 3a...

Nafarroan guttik bezala pozten gaituen gaztelaniazko kanta ezagun baten estribilloa da. Eta Iruñan, Lesakan... ilusio bereziarekin kantatzen duguna.

Aurten, gainera, arrazoi bikoitzarekin ospatzeko itzaropena eman ziguten, egun horietan San Ferminen gain, N-121A errepidea inauguratuko zutela erran baitziguten Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Ekainean izanen zela ziurtatu ziguten, eta ospakizuna iragarria zegoen, eta beraz, egun horiek bi gertaera horietarako balioko zutela adierazi ziguten.

2008ko maiatz aldera obra hauek gibelertuak zeudela salatu genuen, batez ere Sunbilla eta Bera arteko zatian jarduera eskasa zela ikusten zelako.

Obrakiragarritako egunean ez zirela akituko ere adierazi genuen. Baina gero Herri Lanetako Batzorde Parlamentarioaren bisita etorri zen, eta de-

partamentuko goi karguen adierazpenek lasaitu egin gintuzten. Errepide eta eraikuntza zuzendaritza nagusiak aurreikusitako epeetarako akituko zela adierazi zuen, lehen eta bigarren zatiak 2009ko martxorako eta hirugarren zatia ekainerako. Obrak egiten ari diren tokian sastrakak eta zuhaitzak kentzeko eta sarbideak egiteko dauden zailtasunei leporatu zizkion atzerapenak (Diario de Noticias, 2008-06-22).

Aspaldiko amets bat egi bihurtuko zela sinetsi genuen: Bidasoa aldean hain beharrezkoa diren obrak behingoz akituak ikusiko genituela. Baina batez ere Nafarroako zatian obren abiadura zein den eta zein egunetan gauden ikusita, bertze behin desilusio bat hartuko dugu. Atzerapenez gain, ia ez da aitzineratzen, eta horrek benetan kezkatu eta pentsatzen jartzen gaitu. Bertze behin, Nafarroako Gobernuak Belateko alde honetan bizi garen herritarrokin egiten duen bazterketa lotsagarriak kezkarria izaten jarraitzen du.

Horrez gain, kaltetutako herritarrak desformatuak daudela kontuan hartu behar da, eta obren ondorioen berririk ez dutelak (geldialdiak errepidean, trenbidea itxita pa-seatzeko...). Edozein anomaliak zenbat iraun dezakeen jakin gabe. Eragozpen horiek guztiak beharrezkoak direla ulertzen dugu, baina eramangarriagoak izanen ziratekeen arrazoiak puntualki azalduko balizkigukete.

Eskualdeko alkateekin, Nafarroako Gobernuak obren batzorde jarraitzaile bat osatu zuela uste genuen, eta horrek lasaitu egin gintuen komunikaziorako bide egokia

iruditzen zaigulako, baina argi dago batzorde horrek ez duela funtzionatzen, herritarren artean desin-formazioa baita nagusi.

Beraz, atzerapenen zergatia azaltzeko eskatu nahi diogu Nafarroako Gobernuari eta obrak noiz akituko diren adieraz dezala, orain artean erran dizkiguten epeak beteko ez direla garbi baitago.

Espero dugu uholde eta bertze istorioak aitzakiatzat hartuta ez etortzea, azken momentuko baliabide gisan erabiliko zirenak, eta ea azalpen sin-esgarriak ematen dizkiguten, herritar guztiak lasaitzeko.

Jose Luis Etxegarai  
EAJ-PNV

### Pauso ttikitik, gibelerako pausura

Hogeita zortzi urte badiara beratar talde batek sustatuta, euskarazko al-dizkari bat sortu zutela eskualderako. **Ttipi-Ttapa** izena paratu zioten. Pauso ttikian hasi zen eskualdean euskara zabaltzen, euskarak prestigio eskasa zuen garaian. Irrati ttiki batzuetan salbu, euskarak ez zuen tokirik hedabideetan. **Ttipi-Ttapa** sortu eta gero etorri ziren EITB, eta euskarazko bertze hainbertze hedabide.

90.hamarkadaren hasieran aldizkaria profesionalizatu zen, eta horrekin etorri ziren proiektu berriak. 1998ko ekainaren 15ean telebistako emisioei ekin zion. Bortzirriak eta Malerrekan azken hamar urte eta erdian etenik gabe egunero-egunero jardun du herriko in-formazioa zabaltzen.

Gogoan ditut sorrerako une haiek. Unibertsitateko azken urteotan kaze-

taritza ikasten ari nintzen. Ordurako zenbait komunikabidetan kolaboratzen nuen, eta nirekin ere harremanetan paratu ziren, proiektuaren berri emateko. Laster onartu nuen gonbita bertan jarduteko.

1998ko ekainaren 15ean Estitxu Fernandezek ireki zuen emisioa. Oraindik gogoan dut orduko ilusioa, gogoia, urduritasuna eta poztasuna. Lantalde hagitz gaztea, lagun talde handia. Profesionaltasun handiz ibilbide oparoa ireki zen eskualderako eta euskarazko komunikabideentzako. Pixka bat lehena go ekin zion bere biderei ondoko eskualdean, Baztanen, Xaloea Telebistak.

Gogoan dut hiru aste beranduago sanferminetako programa berezia aurkeztea egokitu zitzaidala. Edo 1999ko udal hauteskundeetan, oraindik antenan urtebete ez generamala, zuzenean egindako lehensaiola. Edo Mariano Izetari egindako elkarrizketa. Pribilegiatua sentitu naiz horrelako proiektu batean parte hartu ahal izateaz. Funtzio soziala betetzeaz.

Orain, oroitzen ari naiz eta grabatutako irudiek in ekarri beharko dut gogora **Ttipi-Ttapa Telebista**. Urtarrilaren 31n programazioa eten egin du Bortzirriak eta Malerreka-ko telebistak. Albisteak haserre, amorruta, mina... eragin dizkit. Tama-lez, harridurarik ez. Beti da zaila horrelako proiektuekin aitzinera egitea. Administrazioaren erantzuna ez da berdina izan. Udal eta mankomunitate batzuen inplikazioa bertzeena baino aunitzez handiago izan da. Nafarroako Gobernuaren laguntza eskasak murrizten joan dira urterik urte, desagerteraino. Enpresa han-

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

diek, salbuespenak salbuespen, muzin egin diote proiektuari. Merkataritikiak –betiko behiari esne eske– bere ekarpena egin dute. Baina horiek aski ez horrelako proiektua bideratzeko.

Baina zergatik itzali behar du bere seinalea **Ttipi-Ttapa**? Motiboak bat baino gehiago dira. Baina dirua da arrazoi nagusienerakoa. Nafarroako Gobernaren jarrera zekenak, itsuak, lotsagabeak eraman dute itxierara **Ttipi-Ttapa Telebista**. Edozein hizkuntza politikotan estrategikoa behar duen ildo da –baita euskararen legearen arabera ere– komunikabideen sustapenarena. Ez dago hizkuntza normalizatorik hedabideen bultzadarik gabe. Soziolinguistikaz deus guti dakienak ere badaki hori. Motibazioan –berezi ki erdaldun eta ia euskaldunen artean– eta erreferentziak sortzen berebiziko garrantzia du telebistak.

Eta gainera, bekaizkeri politikoa erantsi behar zaio. Euskarabidearen hizkuntza politika lotsagarriari Lurreko Telebista Digitalaren lizentzia esleipenen bazterkeria gehitu behar zaio, kanpoan utzi baitzituen Nafarroako euskarazko bi telebistak Gobernuak. Bide-nabar, Ipar mendebalde osoa.

Zer galduko dugu **Ttipi-Ttapa Telebistaren** desagertzearekin? Herri mugimenduak sustatutako proiektua, dispersio handiko eskualde bateko lotura, euskararen normalizatorako ezinbertzeko tresna, ahozko ondarearen artixob paregabera, komunikazio bide arin eta azkarra, profesional batzuen lana eta ilusioa...

Mugimendu sozialetatik sortutako euskarazko hedabideen ekarpena ez dago aski aitortua. Administrazioek, oro har, ez diote behar bezainbertzeko ga-

rrantzirik eman. Ez da ildo estrategikotzat hartu. Nafarroako Gobernuak ez duela bistan da, baina Eusko Jaurlaritzaren politikak ere hutsune eta ahulgune handiak ditu. Ukaezina da **Ttipi-Ttapa Telebistak** hizkuntza normalkuntzan egindako lana. 18.000 ikus-entzule ditu **Ttipi-Ttapa Telebistak** CIES etxearen arabera. 18.000 herritar euskarazko telebista kontsumitzen. Eta funtzio soziala ere azpimarratu behar da. Herrigunetik atera eta baserri auzoetara joanez gero maiz transmititzen zitzaigun eskerrona, telebistaren bidez herrian gertatzen zenaren berri eramateagatik etxeetara. Kualifikazio altuko lanpostuak sortzeko ahalmena izan duen proiektua da **Ttipi-Ttapa**. Baina inork ez dio aitortzen funtzio hori. Kalean geldituko diren hiru langileak ez dira langabeak administrazioarentzat. Informazio erabilgarria, mugimendu sozialak, politikarien zein administrazioaren mezuek... guztiek izan dute tokia ezin anitzagoa gertatu den proiektu batean.

Orain, diru premiak, eta batzuen politika ankerrak seinalerik gabe utzi gaituzte. Eta tamalez, badakigu zenbat kostatzen den horrelako proiektuak berriz abian paratzea. Doala nire eskerrona proiektuan sinistu, lan egin eta bultzatzen aritu diren guztioi. Berreziki kameraren gibelean aritutako langileei.

Euskalgintza eta kultur-gintzaren erreakziorako zailtasuna, etsipena, nekea... ere bistakoa da. Irtenbiderik ez duela ez dut sinistu nahi. Eta makurrena dena, bide bera har dezakete bertze komunikabide batzuek.

**Jon Abril Aralarreko koordinatzaileordea eta Ttipi-Ttapa telebistako kolaboratzaile ohia**

### Ttipi-Ttapa Telebistaren itxieraz

«**Ttipi-Ttapa Telebista** itxi digutela!». Obama eta zirkloaren kontuekin batera, seguru aski hau izanen da gure herrietan gehien aipatu den gaia.

Berri honek ez gaitu ezustean harrapatu, baina haserre handia sortu digu: otsailaren 1az geroztik ezin ditugu gure herrietako berriak ikusi, ezta aste hondarretan gure zonaldean egiten diren kirolen emaitzak ere, kultur-agenda ere ezin ikusi, talde ezberdinek antolatzen dituzten ekitaldien berri ere ez dugu... eta hainbat eta hainbateko bertze konturik ezta ere.

Eta hau gutxi ez balitz ere, **Ttipi-Ttapa** galtzearekin batera telebista euskaraz ikusteko aukera urrietatik bat galdu dugu. Lehen ere leihu gutxi zituen etxe-ari, bertze bat itxi diote. Horretaz gain, badirudi azkeneko leihoa ere kolokan daukagula (ETB 1). Ilunpean gelditzeko puntuan gaude.

Beharbada euskaldun ez den batek garrantzi txikia emanen dio aipatzen dugun azkeneko honi, baina guretzat zer den jakiteko, gure tokian paratzea eskatuko genieke: nola sentituko ote zen bere hizkuntzako telebistarik gabe geldituko balitz...

TDTrako kontzesio gabe gelditu dela, Nafarroako Gobernuak laguntza urriak ia-ia deusetan gelditu direla, honetarako dirurik ez dagoela... gauza da gu **Ttipi-Ttapa Telebistarik** gabe gelditu garena.

Bortziritako Toki Ona Institutuko Guraso Elkartetik hedabide honek egin duen lan handi eta garrantzitsua eskertu nahi du. **Ttipi-Ttapa Telebista** gurekin berriz izanen dugulako esperantza ez dugula galtzen azpimarratu nahi dugu.

Eta itxiera honen errudunari gure protesta gogorrena adierazi nahi diogu.

**Toki Ona Institutuko Guraso Elkarte**

### Torturaren inguruan

Urte bat pasa berri da Igor eta Mattin torturatuak izan zirenetik. Ez ziren gure eskualdean torturatuak izandako lehendabiziko lagunak izan, eta tamalez, urteabukatzeko beraien ondoren bertze hirurogeita bi euskaldunek ere torturak jasan izana salatu zuten.

Kamutsak dira inkomunikazio garaian etxeokoe sentitzen duguna adierazi ahal izateko azalpen guztiak; alferrikakoak hitzak. Zer erranik ez beraiekegiatan bizitakoa adierazteko. Guri behintzat ez digute kontatu. Ezin dute kontatu. Ezin da kontatu. Eta hori, gainera eraman beharreko zama da guretzat (harria), jakin badakigulako, egoerarik beldurgarriena imajinatuta ere, errealitatek urrutiti geldi gaitzkeela. Torturaren helburua norbanakoa deusezte delako, pertsona objektu bezala tratatuz, haren duintasuna eta izaera ezabatzea. Eta horretarako min handia egin behar da, min handia egin nahi izan behar da. Baina orain, urte baten ondoren, erran dezakegu Igor eta Mattinen kasuan ez dutela lotu, beraienak zirenak direla orain ere erakusten dutela izaera eta nortasuna. Hala eta guztiz ere, atxilotetaren ondorengo lehen bisitan beraien begi hezeetan ezkutatu ezin izan zizkiguten zauriak gogoratuz oharitzen gara, beraiek bai badutela harri haunditzar bat beraiekin betirako.

Baina harriak izan, herri-tar guziok baditugu gainera; harri tiki txarrak oinetakoetan sartuta. Eta ez di-

tugu gainetik kenduko torturak irauten duen bitartean. Nolabait ere gure ardua ere badelako. Herritarrek garelako, gure hitzen eta ekintzen bitartez, agintariak zuzen eta bidezkotzat jotzen ditugun jokabideetara makurrarazi ditzakegun bakarrak. Estatuak eta erakundeak beraien interesen alde edozer egiteko gauza direlako ekin behar dio jendarteak mugak estutzeari. Baina zoritxarrez, aunitzetan oinetakoetako harrietara ere ohitzen gara. Deserosoak dira, batzuetan min egiten dute, baina denbora ez galtzeagatik beraiekin ibiltzen hasi eta oinetakoen barrenean ditugula ere ahazten zaigu maiz.

Dena den, deserosotasuna eta mina berriz azaltzen dira, eta otsailaren 13a, Joxe Arregi torturen eraginez hil zela 28 urte beteko diren eguna izan daiteke oinetakoetan harri txarrak ditugunaz oharrezko okasioa. Eta zergatik ez, harriak oinetakoetatik ateratzen has-teko momentua.

Ez dugu eskatzen oinetakoetatik harriak hartu eta inoren burura botatzerik, ez dugulako nahi mendekurik, eta egia errateko justizia ere ez dugu eskatzen, berarengan ez dugulako gehiegi sinesten; ez bederen, epaitegietan banatzen den justizian, botereari hain loturik eta jendearengandik hain urrutit dagoen horretan. Gure nahi eta desio bakarra, gure etxeetan bizitutakoa bertze inon ez errepikatzea izaten da. Eta zoritxarrez, berriz gertatzen denean, hura azkena izatea. Eta bide batez, denon artean oinetakoetatik harri-koxkortikiak kentzen hasten garelako ikustea, bakean eta askatasunean ibiltzen hasteko hurbilago egonen garen seinale izanen delako.

**Igor eta Mattinen etxeokak**

## TTIPI-TTAPA

# Hainbat eragileren elkartasuna jaso da telebistaren itxiera dela-eta

Alderdi politiko, sindikatu, udal, hedabide eta herritarrek salatu dute

## ttipi-ttapa

Ilbeltzaren 31z gerostik, **Ttipi-Ttapa Telebistaren** jarduna gelditua dago. Aitzineko alean aipatu bezala, arrazoi ekonomikoak eta legalak izan dira **Ttipi-Ttapa** Fundazioa erabaki hori hartzera bultzatu dutenak. Telebistaren itxiera harira, hainbat izan dira **Ttipi-Ttapa**ri elkartasuna adierazi eta gertatutakoa salatu duten eragileak.

Inguruko zenbait udal eta Euskara Mankomunitate kezkatuta azaldu dira egoera dela-eta, baita alderdi politikoak ere.

Aralarrek, erraterako, Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideak diruz ez laguntzeko erabakiak lehen ondorioa izan duela salatu du, **Ttipi-Ttapa Telebistaren** itxiera ekarri duelako. Nafarroako Gobernuak sostengatzen duten UPN, CDN eta PSN alderdiei Nafarroan euskararen normali-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

**Goizalde Urdanpilleta kazetaria iazko Baztandarren Biltzarrean elkarrizketa bat egiten.**

zazioaren lanean «*oztopoak jartzea*» leporatu die eta **Ttipi-Ttapa Telebistaren** itxiera euskararen aldeko gizarte mugimenduarentzat eta eskualdeko kohesio sozialerako «*kolpe latza*» dela nabarmendu du. NaBaik, bere aldetik, agerraldia eskatu parlamentuak. EAK ere bere elkartasuna luzatu dio **Ttipi-Ttapa**ri.

ELA sindikatuak ere elkartasuna adierazi eta,

bide batez, Nafarroako Gobernuaren jarrera salatu nahi izan du. Aipatu sindiatuaren arabera, «*dirulaguntzen murrizketa honek baieztatzen ez du egiten euskara eta euskal kultura desagertzeko Gobernuak daraman politika gogorra*».

Eragile politiko zein sindikalez gain, hedabide batzuek ere jo dute **Ttipi-Ttapa**rengana elkartasuna adieraztera,

baita herritar aunitzek ere, tartean aupegi ezagunak ere bai. Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei.

Dena den, **Ttipi-Ttapa Telebistaren** seinalea ez da beltzean geldituko. Produktzioa gelditu arren, zenbait zerbitzuren segituko du: urtebetetzeak, merkatu tikiak... Xehetasun gehiago aldizkariko 42. orrialdean aurkituko dituzue.

## BORTZIRIAK

## Torturaren Aurkako Eguna hilaren 13an Lesakan

### ttipi-ttapa

Torturaren Aurkako Egunaren harira, hainbat mobilizazio eginen dira Euskal Herrian otsailaren 13an, ortzirala. Egun horretan, Joxe Arregi «*torturen eraginez hil*» zela gogoratuko da. Han eta hemen eginen diren ekitaldietako bat Lesakan izanen da. 20:00etan kontzentrazioa eginen da Plaza Zaharrean eta Bortziriako herritarrei ekitaldian parte hartzeko deia egin diete antolatzaileek. Bide batez, antolatzaileek gogoratu dute Euskal Herrian 7.000 lagun torturatu direla. Joan den urtean, 64 kasu izan ziren, eta horien artean zeuden Igor Portu eta Mattin Sarasola bi preso lesakarren kasuak.

**ZJ**  
Zalain  
jatetxea - hostala

14 logela bainu  
eta TBrekin

Zalain auzoa s/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA

**ERRATS OIHALAK**

deskontuak  
jubilazioagatik  
-%70 arte

Agerra - Sara, 6 - Bera  
tel. 948 630 620

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak

948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIAK  
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 206 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511



**BERA**

## Institutuaren inguruko lurak berrantolatu nahian ari dira Udala eta Gobernua

Udalak, bertzeak bertze, erabiltzen ez diren zatiak Herriko Etxeari ematea nahi du

**ttipi-ttapa**

Toki Ona Institutuaren inguruko lur zatiak berrantolatzeko hitzarmenarekin lanean segitzen dute Udalak eta Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak.

Udalak aitzineko legealdian abiatu zuen lur eremu horiei buruzko hitzarmena sinatzeko prozedura, eta berriki Nafarroako Gobernuaren proposamena jaso du. Udalak hitzarmena sinatu aitzinetik zirriborro horri hainbat puntu gehitu nahi izan dizkio eta bortsu puntu hauek gaineratzea onartu zuen ilbeltzaren 15eko osoko bilkuran.

Alde batetik, kiroldegiaren aitzineko **patioa eskola ordutik kanpo Udalak erabili** ahal izatea eskatu du.

Bertzetik, Zia erreka-aren hegoaldeko muga guztian **Julio Caro Baroja pasealekua bide publikoa izatea** nahi du, «*gaur egun katastroak dioen bezala*». Ricardo Baroja ikastetxea eta kiroldegiko patioaren artean dagoen pasealekuaren zatia itxi egiten da orain eta zabalik ikusi nahi du Udalak. Dena den, eskola



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Eguraldia haserre**

Haizeak gogotik astindu zituen bazterrak urtarrilaren 24an. Herriko zenbait txoko hankaz goiti utzi zituen eta horixe bera gertatu zen, hain zuzen, Mukixu haurtzaindegiaren inguruan. Haizeak zuhaitzak eta adarrak bota zituen eta horrela utzi zuten haurtzaindegiaren ingurua. Horrez gain, Bortzirriak guztia argirik gabe gelditu zen goizean hainbat orduz.

ordutan zein segurtasun neurri hartu behar diren erabaki egin beharko litzateke.

Hirugarrenetik, kiroldegiaren ekialdeko muga osoan dagoen **1.685 metro koadroko zatia Udalaren izenean** gelditzeko eskatu du. Kiroldegiaren eta ondoko etxeen artean dagoen lur eremua da hori.

**Erabili gabe dauden lur zatiak Udalari ematea** da Nafarroako Gobernuaren zirriborroari Udalak gaineratu nahi

dion laugarren puntua. Hala, Udalak proiektu zehatzak dituen erabili ahal izanen lituzke.

Azkenik, **itxituraren** kostua erdi bana egitea nahi du Udalak.

**Espainiako Gobernuaren laguntza deialdia**

Krisiari eta langabeziari aitzin egiteko, Espainiako Gobernuak iragarritako dirulaguntzen deialdian honako obra hauek sartzeko erabaki

du Udalak: **haurtzaindegia** haunditzea; hiltzean **balio anitzeko lokala** egokitzea; **Herriko Etxean igogailua** jartzea, **Matzada Parkea** egitea, **Kiroldegiko teilatua eta fatxada** konpontzea eta **Kultur Etxeko teilatua konpontzea**.

Horieta gehienak ilbeltzaren 15ean egin dako osoko bilkuran onartu zituen Udalak tokiko inbertsiorako fondo estatalean sartzeko. Dena den, zenbait gaik

eztabaida sortu zuten, haurtzaindegiak eta pilotalekuak, hala nola.

Josu Iratzoki alkatea eta bere taldea, EAE-ANV, frontoiko teilatua konpontzea eta irekiera lizentzia deialdian sartzaren alde agertu ziren, eta haurtzaindegia momentuz ez sartzeko, «*aurten dirulaguntzak izanen direlako*». Baina oposizioak haurtzaindegiari eman zion lehen tasuna eta Aralar, EA eta EAJ-PNVren aldeko sei botoekin aitzinera ateratu zen. Frontoia- ren kasuan, ordea, EAE-ANVk baino ez zuten eman aldeko botoa (lau boto) eta ez zen aitzinera ateratu gainerako sei zinegotziak kontra azaldu zirelako.

**Inauterietako prestatzen**

Inauterietan kaldero gisa ateratzeko entseguak otsailaren 17an eta 18an egingen dira, 19:30ean Kultur Etxean. Inude eta artzaintan ateratzeko, berriz, hilaren 19an eta 20an egingen dira entseguak Eztegarra frontoian 20:00etan. Horrez gain, aipatu, bazkarirako txartelak entsegu egunetan egonena dira salgai.

**BERA** Zere inguru klase guzietako lesaketa (xamarra, zinoarra, arnasmara, kukuxu...) eta erretorri xogotsuz garbitu nahi baduzu, deitai Termite eta Piplex tratamenduak.

**GOIEKO** Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 557 • Zalea, 42 A • BERA

**Xirzail**

Alkate 1 BERA  
948 631 400

arropak • maindireak  
mantak • nordikoak  
toallak • kortinak  
alfonbrak

**Goya**

Abram, 3 • Tel: 948 630 083

**LABE ZAR**

Tel: 948 631 076 • BERA

## LESAKA

# Nabazko lurren aferan beraien jokaera garbia dela diote Oninek eta EAK

Birkalifikazio kontsulta Hirigintza Batzordean bertan behera utzi zen eta ez dute PNVren jarrera ulertzen

**Aitor AROTZENA**

Herriko hirigintza planaz, PNVk Udal Gobernu Batzordeari egindako kritiketatik eta bertze gaietat aritzeko prentsaurreko bana eskaini zuten Aralarrek eta EAK ilbeltzaren 22 eta 23an. Aralarrek babes eta elkartasun osoa eman zion Onin Udal Taldeari eta «berezik hirigintza alorrean» Deñe Abuinek egindako lanari. Horren erakusgarri, Aralar larko Nafarroako koordinatzailea eta koordinatzaileordea, Txentxo Jimenez eta Jon Abril hurbildu ziren Kasinora.

Oposizioa egiteko PNVk hartu duen jarrera «ulergaitza» egiten zaio Aralarri: «Irairean eta deskalifikazioan oinarritua dago bakarrik».

Nabaz eta Landazelaiek proiektuen inguruan Oninen jarrera berretsi nahi izan zuten Jon Abrilek. Beraien posizioa garbia dela nabarmendu zuten eta urtarilaren 12ko Hirigintza Batzordean argi gel-

ditu zela: «Nabazko egitasmoa ezagutu zenez kontrako jarrera irrimoa izan dugu, eskandalugarria iruditzen zaigu eta ez zaigu egokia iruditzen Lesakarako. Ezin da horrelako proiektu handia lur ez urbanizagarrian planteatu, oraindik lur urbanizagarria badagoenean garatzeko». Deñe Abuinek ere hitza hartu zuen, EA-rekin hitzarmenik dutenik ukatzeko. Udalean gehiengo osorik ez izatea lesakarrentzat suerrea dela uste du Onineko bozeramaleak.

**ALKATEAREN GESTIOA «SINPLEA ETA GARBIA»**

EA ere prentsaren aitzinean azaldu zen eta herriko alkate, zinegotzi eta juntako presidentearekin batera, Maiorga Ramirez Nafarroako presidentea eta Aitor Etxarri NaBaiko parlamentaria izan ziren. Koldo Erkizia alkateak Nabazko lur horiek birkalifikatzeko udal-txean egindako kontsul-



ARGAZKIA: AITOR A.

## San Anton Eguna

Urtarrilaren 18an San Anton Eguna ospatu zen Endara auzoan eta Lesakatik ez ezik, Bortzirietako bertze herrietatik, Irundik, Hondarribitik eta Oiartzundik hainbat bisitari hurbildu ziren, oinez, bizikletaz, zaldiz eta autoz. Hiru mezetan tiki gelditu zen baseliza, jende aunitz bere animaliekin, batez ere zakurrekin hurbildu baitzen San Antonera, hauek eritasunetatik babesteko eta zaintzeko eskaria egitera. Eguraldia zalantza ibili zen, baina goizean zaparrada arinen bat bertzerik ez zuen bota. Hori bai, eguerdi aldera euria gogotik egin zuen eta dantzaldiko giroa zapuztu zuen.

taren inguruan eman dituen urratsak azaldu zituen eta bere gestioa hagitz sinplea eta argia izan dela azpimarratu nahi izan zuen: «udal-txean abenduaren 30ean promotore pribatu baten sarrera bat izan zen, lurren birkalifikazio bati buruzko kontsulta eginez. Horrelako ugarizaten dira, edozeinek dauka horrelako kontsultak egiteko eskubidea. Alkate bezala dagokidan lana eginez Hirigintza Batzordea pasatu nuen eta aitzinetik hiru taldeei eman nien dokumentazioa aztertzeke. Urtarrilaren 12ko batzordean garbi geratu zen ez zeukala aitzinera joateko aukerarik. Beraz, promotorari kon-

tsulta hori bertan behera gelditu zela jakinaraztea erabaki genuen. Beraz, nere gestioa sinplea eta garbia izan da».

Hirigintzan dauden arazoak azaldu zituen alkateak: «2008an plan hidrografiko berria onartu zenetik, Ur Konfederazioak ez du erreka inguruko ehun metrotan inolako eraikuntzarik egiten uzten, Udalak Inundabilidade Plana aurkeztu eta onartu biktartean». Nafarroako Gobernu txostenen arabera, urak hartzen ahal duen eremuan dauden etxe guztiak orde-naziotik kanpo utzi behar harko lirateke, eta horrek «herri erdia horrela geldituko litzatekeela erran nahi du, inola-

ko obrarik egiteko modurik gabe eta hori ezin dugu onartu».

**ARGITARATUTAKOAK BERRETSI DU PNVK**

PNVk argitaratu duena berretsi du eta agertzen diren datu guztiak egiaztatzen ahal direla azpimarratu du. PNVren ustez, «Aralar-Oninek eta EAK egindako adierazpenek frogatzen dute ez diotela gaiari errotik heldu nahi izan».

PNV dioenez, «gezur galanta da promotoreekin izandako lehen kontaktua abenduaren 30ean izan zela» eta badakite EAK eta Oninek hilabeteak eman dituztela «proiektua garatzen, udal-txean ofizialki aurkeztu aurretik».

**IRU BIDE**  
Integritate - Auzoak  
Bilbao, 101, 1. Lehiaketa  
Tel: 946 637 127

**XATURETXEA**  
ZABIA  
JATETXEA  
T: 948 637 260 - LESAKA

**J. RAMOS**  
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut  
Sakelekoak: 637 836 023 - LESAKA

**GOZZAIDE**  
BARRIOGUTUNA  
Bilbao, 41 - 1. LEHIAKETA - LESAKA

## ETXALAR

### Usategiak kultur ondare izendatzeko txostenari alegazioak aurkeztu dizkio Udalak

Eskaria Jaime Gazteluk egin bazuen ere, afektatutako eremu gehienaren jabeak Etxalar eta Sarako herriak dira

#### Joseba eta Nerea

Usategiak kultur ondare izendatzeko abiatu den txostenak eztabaida bizia eragin du herrian. Usategietako lur zati baten (%5) jabea den Jaime Gazteluren eskariz, Nafarroako Gobernuak Etxalarko Usategiak Interes Kultureko Ondasun izendatzeko prozedura abiatu zuen bere garaian, baina ez herritarrak, ez Udala, ez dira horren alde atera, eta hainbat alegazio aurkeztu dizkiote txostenari. Udalaren arabera, «Usategiak kultur ondare izendatuz gero, hori guztia Udalak kudeatu beharko luke, Nafarroako Gobernu-ko Kultura Departamentuarekin eta Sarako Herriko Etxearekin batera, trepak Sarako

eremuan baitira». Guztia-aren ardura partikular batek hartu nahi izatea da onartu ez dutena. Udalaz gain, Usoa Ehiztarien Elkarteak eta hainbat herritarrek ere alegazioak aurkeztu dituzte.

Udalak dioenez, Interes Kultureko Ondasun izendatu nahi den eremu guztia ez da Jaime Gaztelurena, «3.470,09 m<sup>2</sup>ren jabea baino ez da katastroaren arabera». Horrela aipatu digu Patxiku Iri-sarri alkateak.

Afera honek ez du historikoki, baina batez ere azken urte honetan, usazaleen eta ehiztarien artean izandako tirabirekin zerikusirik, «nahiz eta batzuek bi kontuak nahasi dituzten», erran digu Patxikuk.



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

#### Sunbillako inauterietara mendiz

Urteroko ohiturari segituz, aurten ere herritar kuadrilla polita juntatu zen Sunbillako inauterietara mendiz joateko. Urtarrilaren 25ean goiz pasa egin, Sunbillako karrozak ikusi, eta Larraburuan bazkaria egin zuten.



ARGAZKIA: ARANTXA BIZENTE

#### Iruñe eta Ixaso sagardo denboraldiaren irekieran

Urtarrilaren 25ean Iruñe Ola Sagardotegiko txotx denboraldiaren irekieran Iruñe eta Ixaso Elizagoien ahizpak aritu ziren trikitixarekin giroa alaitzen. Ez da sagardotegian jotzen duten lehenbiziko aldia baina eurentzat «berezia izan zen». Txalapartariekin batera, Peñagarikano eta Mendizabal bertsolariekin parte hartu zuten. Inaxio Errandonea Berako pilotaria izan zen lehenbiziko sagardoa probatzeaz arduratu zena. Hemendik aitzinera, hilabeteen bi asteburutan ere joko dute Ola Sagardotegian, erran digutenez, «bertze trikitilari batzuekin batera ariko gara, txandaka, ortziral bat eta larunbat bat hilabeteen».

**Javier Manterola**  
 Telesko instalatzailea  
 Iturgintza • gasa  
 kalifikazioa  
 Tfnoa: 629449602 • BERA

**USOA**  
 nekazari kooperatiba  
 ganaduarentzat  
 pentsurik egokiak  
 Tel: 948 635 214 • ETXALAR

**ERREKALDE**  
 PLATER KONTAKTUAZ  
 PATXIKU  
 BIZENTE  
 Tfnoa: 948 630 254 • BERA

**PAGOLA**  
 EMBUTIDOS  
 artesanos desde  
 1940  
 Alzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

**ERROTARZAR**  
 harategia  
 Bertako  
 produktuek  
 Eztegera, 3 • BERA  
 Tel/Faxa: 948 630 088

## IGANTZI

# Otsailaren 13an eta 14an izanen dira inauteriak

Etkez etxe banatuko dituzten boletoen zozketa larunbatean egingen da

## ttipi-ttapa

Hurrengo astean hasiko dira inauteriak Igantzin. Otsailaren 13an eta 14an izanen dira, ohi bezala, ortziral eta larunbatean. Aitzineko urtean bezala, mozorroak ohiko ibilbidea ortziral goizean hasiko dute, Aurtizko Oihana Mingegia eta Oihana Elizalde trikitilari eta panderojolearekin.

10:00etan elkartuko dira eta Berrizaun auzora joanen dira. Frain auzoa eta bidegurutze aldean dauden etxe berrietara ere orduan joanen dira. Etkez etxe eskean ibili ondotik, herrira itzuliko dira bazkaltera. Arratsaldean, berri, herri inguruan eta Sarrola auzoan ibiliko dira gazteak eskean. Eguna bukatzeko afa-



UTZITAKO ARGAZKIA

**Gazte kuadrila ederra bilduko da aurten ere inauterietan etkez etxe ibiltzeko.**

ria egingen dute.

Larunbatean, 8:00etan elkartuko dira eta Irisarri auzotik hasita, herri bazterreko bertze auzoetan barna ibiliko dira: Elusta, Unanu eta Piedade Gainean.

Etkez etxe eskean dabiltzanean, etxe bakoitzeko boleto bana banatuko dute eta horren zozketa larunbat arratsean egingen da, 21:00etan frontoian. Segidan, afal aitzinetik

aurten estreinakoz mozorroen kalejira egingen da trikitilariekin herrian barna eta gero afaria izanen da La Villa jatetxean. Gauerditik aitzinera dantzaldia izanen da frontoian.

## ERREPIDEAK

## Gipuzkoan lan egiten dutenentzat deskontu eske

## ttipi-ttapa

Gipuzkoan lanean dabiltzaneke ere Bidegik A-8 eta AP-1ean indarrean dituen deskontuak izan ditzaten eskatu du Aralarrek eta ebazpen proposamena aurkeztu du horretarako Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Gipuzkoan erroldatutakoek A-8a eta AP-1a erabiltzea-gatik ordaintzen duten kopuruaren zati bat berreskura dezakete. Beharpen horiek %25ekoak dira lehen bidaiatik 8.era, %55ekoak 9.etik 20.era eta %75ekoak 21.etik aitzinera. Orain, Gipuzkoan bizi ez arren, han lan egiten duten pertsonen aukera hori ematea nahi du Aralarrek.

**KARRIKA NAGUSIA • IGANTZI • 948 637 497**

**MERTZERIA  
Leño  
LENTZERIA**  
Tel: 948 627 014  
Herrero Plaza, 10 - LESAKA

**Gure Haragia  
Nuestra Carne**

**LA VILLA  
JATETXEA**  
Janari tradizionala • Egunero irekia

IGANTZI • Tfnoa: 948 63 72 90 (Erreserbak egiteko)

**ONGI PASA INAUTERIAK**

## ARANTZA

### Dena prest dago inauterietarako

Orzegun, ortziral eta larunbaterako ohiko egitaraua antolatu dute Mozorro Zuriek

#### Nerea ALTZURI

Otsaila hasi bezain abudo, bestarako nahiz tradiziozko ohiturak jarraitzeko prest gaude. 20 Mozorro Zuri inguruko taldeak egunez egun egitaraua prestatu du eta norberak bere mozorroa ere prest izanen du.

#### ORTZEGUNA, BASERRIZ BASERRI

Orzegun honetan, otsailak 5, goizeko Zarkutenea ostatuko gosariarekin Mozorroek indarrak hartuko dituzte. Ondotik, herriko musikariek batera, eskolako lagunengana joanen dira. Segidan lau auzoetara joateko bi taldetan banatuko dira: batzuk Aientsa eta Azkilarreara joanen dira; eta bertzeak Bordalarrea eta Eguzkialde-  
ra. Egun osoan puxka-

puxka eskean ibili ondotik, afaria egingen dute Zarkutenean.

#### ORTZIRALA, HERRIAN BARNA

Biharamunean, ortziralara, herriko etxeetan ibiliko dira eta eguerdian, Burlada jatetxean bazkalduko dute. Arratsaldean, herrian barna trikopoteoa izanen da.

21:30ean emakumeen afaria egingen da Burladan eta Mozorro Zuriek, berriz, Ekaitza Elkartearen afalduko dute. Gauerditik aitzinera, Salaberrirekin dantzaldia izanen da gorapean.

#### LARUNBATA: MOZORROAK, KIROL SAIOA ETA BERTSO AFARIA

Larunbat goizean atsedean hartu ondotik, Mozorro Zuriek Pabloe-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Inauteriak hastean, lehen bisita eskolara egiten dute Mozorro Zuriek.

nean bazkalduko dute. 17:00etatik aitzinera, berriz, haur mozorrotuen desfilea izanen da. Ondotik, jokoak eta merienda izanen dituzte. Mezondoan, 19:30ean, Mozorro Zuriaren arteko herrikirol saioa egingen da frontoian eta hori bukatzean, denak Aterpera joanen dira, Jon Maia eta Jexux Mari Irazu bertsolariek afaria izanen baita azken urteetan bezala. Gauerditik aitzinera, gorapean Jalisko Band taldeak dantzaldia eskainiko du.

#### Kroaziara bidai

Hamar bat urte igaro dira nahi duen ororentzat

oporraldi gidatuak antolatzen hasi zirenetik Arantzán. Herritarrak nahiz inguruko batzuk urtero urtero taldean ibiltzen dira, batzuk gainera ia urtero egiten diren bidaietan parte hartzen dute. Munduko hainbat herrialde bitositatu dira urte hauetan: AEB, Portugal, Andaluzia, Extremadura, Galizia, Katalunia, Tunisia, Herbehereak, Turkia... Karibeko eta Mediterraneoeko itsas bidaiak ere egin dituzte. Aurten, berriz, Kroazia ezagutzeko asmoa dute.

Ekainaren 15etik 22ra han izanen dira eta herriko autobusez Madril-

ra joan, eta handik hegazkinaz Kroaziako Dubrovnik hirira joanen dira.

Lehendabiziko egunetik hasi eta hainbat paraje, hiri, monumentu, txoko, parke... bisitatuko dituzte: Elaphiti irlak, Montenegro, Trogir, Split, Sibenik, Zadar, Plitvice lakuak, Opatija eta Pula hiriak, bertzeak bertze.

Oporraldi honetan parte hartzeko otsailaren 15a baino lehen eman behar da izena; Martin Legarrari 948 634030ra deitu behar zaio eta izen emate-rakoan, seinale gisa Nafarroako Kutxako kontu korrontean 350 euro sartu behar dira.

**GOIENBURU**  
 ILURGINTZA  
 iturgintza, kalifikazioa eta gasa eguzki plakak eta biomasa  
 Goienburu, 10 • 31790 ARANTZA • 600 902 723

Tel: 948 634 179  
**ARANTZA**  
 ALBERGIA  
 ALBERGIA - JATETXEA

**PRIMI**  
 ostatua  
 ongi pasa inauterietan!  
 Tel. 948 634 052  
 ARANTZA

**ARANTZAKO UDALAK**  
 inauteri zoriontsuak opa dizkizue

**BOBKO**  
 OBERAZKUNTZA  
 Fran Auzoa - LESAKA  
 Tfn: 948 637 826

## BERTSOLARITZA

# Larunbat honetan Igantzín jokatuko da Nafarroako Txapelketako bigarren saioa

25 bertsolari ari dira lehian,  
gehienak 25 urtetik beheitikoak

## ttipi-ttapa

Abian da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 38. edizioa. Urtarrilaren 31n Auritzen jokatutako saioan eman zitzaion hasieran eta martxoaren 21ean Elizondon finala jokatu bitartean hainbat saio izanen dira. Guztira 25 bertsolari ari dira, eta iazko txapeliduna izan ezik, gainerakoak lehen fasetik abiatu beharko dute. Nabarmentzekoa da, bertsolari gehien gaztetasuna, horietako aunitz 25 urtetik beheitikoak baitira.

Txapelketaren egitura ere desberdina izanen da aurtengoa. Lau azken-laurden jokatuko dira seina bertsolariarekin, eta horietatik 17 bertsolari

lari sailkatuko dira final-laurdenkoetarako, azken-laurden bakoitzeko lehenbiziko bi sailkatuak eta puntuaziorik onena jaso duten bederatzia.

### 1. AZKEN LAURDENA

Aipatu bezala, ilbeltzaren 31n abiatu zen txapelketa eta sei bertsolari hauek hartu zuten parte Auritzen: Jon Barberena (Elizondo), Jon Elizetxe (Gartzain), Bittor Elizagoien (Ornoz-Mugairi), Aimar Karrika (Auritz), Alazne Untxalo (Ituren) eta Saioa Alkaiza (Iruña).

### 2. AZKEN-LAUDENA

Bigarren azken-laurdena larunbat honetan, jokatuko da Igantzínko Ju-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

**Luze** leitzarrak igande honetan hasiko du txapelketa Betelun, eta Zelaieta iazko txapelidunak final-laurdenkoak ailegatu arte zain egon beharko du.

bilatuen Elkartean, 17:30ean. Sei hauek ariko dira: Julio Soto (Gorriti), Iñigo Olaetxea (Lesaka), Oier Lakuntza (Iruña), Eneko Lazkoz (Etxarri), Iker Gorosterrazu (Ituren) eta Garazi Gaberna (Bera).

### 3. AZKEN-LAUDENA

Igandean hirugarren azken-laurdena jokatuko da Beteluko Zigari Elkartean, 17:30ean. Sei hauen txanda izanen da: Erika Lagoma (Lesaka), Miel Mari Elozegi *Luze* (Leitza), Ander Fuentes *Itturri* (Zubieta), Aritz Sarragueta (Betelu), Iñaki Aleman (Iruña) eta Iñigo Ibarra (Iruña).

### 4. AZKEN-LAUDENA

Otsailaren 14an, larunbata, Tafallako Kube Aretoan jokatuko dena laugarren azken-laurdena izanen da, 17:30-ean hau ere. Xabier Terreros (Lesaka), Xabier Legarreta (Arano), Diego Riaño (Leitza), Joxe Juan Zubieta *Etxabe* (Lesaka), Ekaitz Astiz (Iraizotz) eta Xabier Silveira (Lesaka) lehiatuko dira.

### 1. FINALAURREKOA

Otsailaren 21ean hasiko da final-laurden itzulia. Goizuetako udalletxeko Ganbaran jokatuko da lehena, 17:30-ean, eta Julen Zelaieta iazko txapelidunarekin

batara, azken-laurdenetako bortz ariko dira.

### 2. FINALAURREKOA

Otsailaren 28an jokatuko da bigarren final-laurdena, Altsasuko Iortia Kultur Etxean, 17:30ean.

### 3. FINALAURREKOA

Hirugarren final-laurdena martxoaren 7an izanen da Antsoaingoantzokian, 17:30ean.

### FINALA ELIZONDON

Martxoaren 21ean, larunbata, Elizondoko Lurdantzalekuan egingen da finala. Zortzi bertsolari ariko dira lehian. Saioa 17:00etan hasiko da.

**José I. Gonzalez Enguita**  
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel.666 235 466

**sarobe**  
guztizko ondegiz

17 de etzegara 21 beja  
34700 berriñuena

1.948 63 08 09  
www.sarobe.net

**BEINTZAKO  
OSTATUA**

☎ 948 45 00 14

www.alfargorria.com

www.alfargorria.com

1171 BEINTZA LABAIN

ORBELA

**Larkilamaik**

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK  
URBANIZAZIO PROIEKTOAK  
ETXE BERRITZEAK  
NABEAK  
KONSULTAK  
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO • Santiago, 54 behe • 948 581 931  
BERA • Eztegarra, 8 behe • 948 625 232

**iparra**

Rosal Izargaitze Alzuri  
PSICOTERAPISTA

Rikardo karmenak  
Kibel lezuak  
Euskararen arloko ikertzailea  
Ondarretan

00 33 559 48 19 32  
Teléfono 7-19101410

**LEGARRA**

Produktu batzuetan kolore baikoitzak  
bere deskontua du:

**DESKONTUAK**

- -60% eta -50%
- -40 % oparietan
- -30 %
- -20 % oparietan

Tel/Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

## SUNBILLA

# Haizeak, euriak eta kazkabarrak ez dute inauteri giroa zapuztu

Igandeko desfilean 15 karroza atera zituzten herritarrek

### Jaione OTXANDORENA

Joan dira aurtengo inauteriak eta eguraldiak batere ez lagundiarren, ez du herriko giroa zapuztu. Ostiralean, urtarrilak 23, urteroko legez, 34 gazte elkartu ziren Iturburu ostatuan inauterietako lehen gosaria egin eta baserri baserri eskean haste-ko.

Arratsaldean, herriko haurrak izan ziren protagonista, eskolan egindako nahiz bakoitzak etxetik eramandako mozarroekin, Ulibeltzak Elkartearen txokolata da izan zuten eta ondoren Agerralderen eskutik dantza egiteko aukera ez zuten alferrik galdu.

Gauean, berriz, 115 emakume elkartu ziren Ulibeltzak Elkartearen bertan jarritako pantaila erraldoi batean, afaldu bitartean, 2000. urtetik aurrera emakumeen afarian aterako argazkiak ikusteko aukera izan zuten. Gaueko

ordu tikiak arte luzatu zen besta.

Larunbat arratsaldean, haurrek, berriz ere mozarrotu, eta Elkartean musika izan zuten eta gazteak, berriz, herriaren barrena ibili ziren eskean.

Iganderako karrozen desfilerako izugarritzko beldurra zegoen aste-buru guztian eguraldia kaxkarra izan baitzen, baina zorte kontuaedo halabeharrendaren ondorioz, desfilean ez zuen euririk egin eta ateratako 15 karrozek ez zuten beraien ibilbidea behar bezala egiteko oportunitate izan.

Desfilea akitu ondoren, zerriaren eta bildotsaren zozketa egin zen. Zerria Iruiritako Laura Salabururi tokatu zitzaion eta bildotsa soriar bantentzat izan zen. Inauteriei behar bezalako bukaera emateko, bazkaria izan zen Ulibeltzak Elkartearen eta 22:00ak argazkiak ikusteko aukeratik dantzaldia izan zen.



ARGAZKIAK: A. ARRETXEKA ETA I. UGALDE

**Irudiek eurek nahikoa erraten dute: eguraldia txarra, baina giroa ezin hobea izan dugu inauterietan.**

### Euskal Herriko Mus Txapelketa

Ortziral honetan, otsailak 6, Euskal Herriko Mus Txapelketa jokatu da Ulibeltzak Elkartearen. 21:30tik ai-

tzinera eman beharko da izena (20 euro bikoteko) eta 22:00etan hasiko da saioa. Irabazleak Iruñean egingen den kanporaketara pasako dira. Final haun-

dia, berriz, Seguran (Gipuzkoan) jokatu da, martxoaren 14an eta irabazleek 3.000 euro, astebeteko kruzera eta txapela eramanen dituzte.

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA

**Inaki Alzueta margoak**  
Pinturak dekoratibak eta industriak • Dekorazioak: eskulak, leinokak, fatxadak • Ornamentak  
Lakatuak eta barnokak: lapurrak • Pinturak  
Hartu eta egiteko arazoak: garbitzeak da  
Tel.: 609 962 417 • Berritzi etxea • Landibar Auzoa • 31711 URDAZULI  
pinturas.alzueta@yahoo.es

**udana** salazones  
UNE-EN-ISO 9001  
**IAC**  
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO  
SCC-02-0199  
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztusia  
Bakailu gezatua eta kongelatuak, erabiltzeko prest  
Alkaiaga Ind. - Baraña, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tinoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

## MALERREKA

# Otsailaren 6an eta 7an egingen dituzte saldiastarrek inauteriak

Ostiralean baserriz baserri ibiliko dira eta larunbatean herrian

## ttipi-ttapa

Ortziral honetan, otsailak 6, hasiko dira inauteriak Saldiasen. Arratsaldean baserriz-baserri ibiliko dira neska zein mutil gazteak mo-zorroturik. Gauean, ber-ritz, afaria egingen dute Herriko Ostatuan.

Larunbatean, gosaldu ondotik, herrian bar-na ibiliko dira etxez-etxe, Agerralde akordeoilarien laguntzarekin. Gau-eko afarian ere Agerraldek alaituko ditu bazte-rrak. Hori izanen da aur-tingo inauterietako az-ken ekitaldia.

## Baimenaren zain hartzaindegia irekitzeko

Laster zabalduko ditu ateak **Doneztebeko hartzaindegia**. Dena prest dago eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak baimena ematen duenean paratuko da martxan. Obrak bukatuak eta hartzaindegiko langileak aukeratuak daude: hiru he-

zitzea, zuzendaria, sukaldaria, honen laguntzailea eta garbitasunaz arduratuko dena ariko dira lanean.

Miguel San Miguel alkateak adierazi digunez, Jaunaga enpresak egin ditu obrak, 285.000 euroko aurrekontuarekin, eta dirulaguntza %60 ingurukoa da. Barreneko altzariak paratzeak, ber-ritz, 70.000 euroko gastua eragin du. Kasu honetan, laguntza %95-ekoa da. Dena prest dagoenez, barutik zein kanpotik nola gelditu den erakusteko ateak zabaltzeko eguna egin zuten joan den larunbatean.

**46 HAURRENTZAKO TOKIA** 12 eta 36 hilabete artean dituzten 46 haur hartzeko tokia izanen du hartzaindegia berriak, baina ikasturte hau 38ekin hasiko duela jakinarazi digu alkateak.

Bertzalde, eraikinak hainbat gela izanen ditu: gela bikoitza zerbitzuekin, gela xumea zerbi-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela bi urteko argazkian ageri denez, gazteek umore ederrean pasatzen dituzte inauteriak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Leurtzako igel gorriak kontrolpean

Eguraldi heze eta euritsua denean ateratzen dira oihaneko igel gorriak euren gordelekuetatik, eta azken aste hauek aproposak izan dira horretarako. Leurtzako urtegiak, erraterako, aunitz ibiltzen dira, elikatzeke eta babesteko toki ona dutelako. Dena den, desagertzeko arriskuan daude eta hortaz, euren kontserbazioa legez bermatua dago. Ehiza debekatua izanagatik, egun hauetan ehiztariak oihaneko igel gorriak harrapatzen ibiltzen dira Leurtza aldean eta hori saihesteko neurriak hartu ditu Foru Poliziak. Azken urteotan bezala, Foruzaingoaren Babes Ekologikorako Atalak kontrol neurri paratu ditu martxan eta aste hauetan Leurtza inguruak kontrolatzen ari dira.

tzuekin, zerbitzu anitzeko gela batez ere jantoki eta tailerrak egiteko,

sukaldea, jolas-gela, harrera, bulegoak, bilera gela, ikuztegia, aldagelak,

despentsa, biltegia eta bi patio, bat estalia eta bertzea aire zabalean.



## ITUREN

# Urtarrilaren 1az geroztik indarrean daude 2009rako zerga-tasa berriak

Udalak 2008ko abenduaren 9an onartu zituen aurtengo tasak

### Arkaitz MINDEGIA

2009rako tasa berriak indarrean daude urte hasieraz geroztik. 2008ko abenduaren 9an egin dako osoko bilkuran erabaki zituen Udalak.

#### 1. Zerga-tasak:

- Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: katastroko balio berri eta garbien %0,28.

- Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: katastroko balio berri eta garbien %0,652.

- Instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zerga: obraren benetako kostu osoaren %3a.

- Hirilurren balio igoraren gaineko zerga 2008an bezalakoa izanen da.

#### 2. Uraren kontsumorako tasa

finkatuko da dagokion ordenantza fiskala onesterakoan.

#### 3. Auzolanetik libratzeko ordaindu

behar den diru kantitatea mantendu egingen da. Hala, 30 euro ordaindu beharoko dira auzolan bakoitzeke.

Erabaki hauei buruzko

xehetasun gehiago Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurkituko dituzue.

### Joare soinuak euri artean

Urteroko ohiturei eutsiz, ortzegunarekin, 22an hasi eta otsailaren 1a bitarte, ez da jan eta edanik falta izan.

Astelehenean erauntsi eta kazkabarrari aurre egin zioten herritarrek. Batzuk ganbaratik arropa zaharrak hartu eta mozorratu egin ziren, eta joaldunek, berriz, joareak paratu eta ibilbidea zintzo bete zuten. Asteartean eguraldi lasaiagoa izan arren, euria lagun izan zen egun guzian. Halere, mozorroek, karrizketan ez zieten hutsik egin zubietarrei.

Asteazkenean, mozorroak alde batera utzi eta joareak hartu eta etxez etxeko eskea egin zen eta inauteriak ongi akitzeko asteburuan azken otorduak egin ziren. Iturenen larunbat goizean herri kirolak eta dan-



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

Eguraldi txarrari aurpegi ona paratu, eta Aurtitz, Ituren eta Zubietako joaldun zein mozorroek txukun bete zuten euren lana.

tzarien saioa izan ziren eta ondotik, bazkaria, kantak eta musika. Aur-

titzen, berriz, arratseko zaharren afarian 70 lagun bildu ziren eta inau-

teriei aio errateko igandean bazkaria eta kontuak egin zituzten.



**H. LOPEZ**

FONTANERÍA • ITURGINTZA  
Santiago 93, Elizondo  
Tel. 948 452 126

**TXIMINIETAN OFERTAK**



## BERTIZ

# Apartamentuen Elkartea sortu du Bertizko Partzuergo Turistikoak

Saldias, Bera, Etxalar, Elizondo eta Urdazubiko bazkideak daude elkarte sortuberrian

## ttipi-ttapa

Bertizko Apartamentuen Elkartea sortu du te inguruko apartamentu turistikoek. Ezaguna denez, Partzuergoak eskualdeko Udalak nahiz arlo turistikoko enpresak biltzen ditu. Azken hauek Partzuergoko kideak dira hurrengo elkarte bitartez: landa-etxeak, hotelak, jate-txeak, tabernak, kanpinak, aktibitate enpresak eta artisauak.

Orain arte, apartamentuek ezin zuten Partzuergoko kide izan, horretarako beharrezkoa zen elkarte osatu ga-

bea zelakoz, baina dagoeneko posiblea da, Partzuergoan sartzeko moduan dira. Bazkide sortzaileak hainbat herritakoak dira: Saldias, Bera, Elizondo, Etxalar eta Urdazubikoak. Lehen pausoa eman dutenean, apartamentuegiago gehitzea da helburua.

## BAZKIDE BERRIAK

Bertizko Partzuergoak kide gehiagorekin bukatu zuen 2008a. Hiruak Bat Landa-etxeen Elkartea izan da gehien jaso dituen, zortzi bazkide berri sartu baitira.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

## Bidasoa Bizirik eta Bertizko Partzuergoaren arteko lankidetzaren hitzarmena

Bidasoa ibaiak zeharkatzen dituen inguruetakoa baliabide turistiko baliabidea eman eta elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu zuten joan den urtarrilaren 23an Bertizko Partzuergo Turistikoak eta Irun eta Hondarribiko baliabide turistikoak kudeatzen dituen Bidasoa Bizirik erakundeak. Alde batetik, garai batean Irun eta Elizondo lotzen zituen tren txikitoren izaera berresten du akordioak. Horrez gain, bi eremuetan gai kultural amankomunak daudela ere ageri da, hala nola, zinea, literatura, musika eta pintura. Aipatu hitzarmen horren bidez, kultur ekimen horiek turistikoki lantzearen alde azaldu ziren. Ekitaldian Bidasoaren inguru osoko jardunaldi bat egitea aurreikusi zuten, agente turistiko publiko zein pribatuek parte hartzeko. Hitzarmena sinatzeko ekitaldian, Bidasoa Bizirik erakundearen aldetik, Felix Asensio Irungo zinegotzia eta kontseiluko presidentea, Maite Pelaez Hondarribiko turismo zinegotzia eta Guillermo Etxenike kontseilari ordezkaria izan ziren, eta Bertizko Partzuergoaren izenean, Martin Garde Baztango zinegotzia eta Partzuergo presidentea, Patxiku Irisarri Etxalarko alkatea eta Izaskun Goñi Bertizko Partzuergoko kudeatzailea. Goiko argazkia ageri direneak sinadura ekitaldian parte hartu zuten sei ordezkariak dira.

## TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde

Proiektu zenbakia: 15.996

**Plakodur**  
Etxeak eta Plazak

Etxeak edo plazak egiteko mota guztietako lanak

Dabaitak • Perretak • Altzarak • Isolatamenduak  
Suaren kontrako babesa

info@plakodur.com • 943 008 544  
[www.plakodur.com](http://www.plakodur.com)

**Behetik**  
ANIKI JASOTZAILEAK

Añorgabiki 14  
Tel: 943 372 870  
Fax: 943 372 870  
Fax: 943 385 586  
behetik@behetik.com  
20018 DONOSTIA

**Ola**  
SAGARDOTEGIA


- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

102 Meakak auzoa  
20304 IRUN  
Tfona 943 623 130



# inauteriak

2009





# DONEZTEBE

**NEKAZARI ZERBITZUAK**  
Vicente Arozena Andueza

Ref Agroweco

Pentsuak • Organiak • Harriak  
Oliako eta oliandak astero  
ortzegunetan • Kalorak.

Mugues, 20 • 31740 DONEZTEBE  
Tfnoa/Faxa: 948 45 18 45 Mugikorra: 810 25 85 95

**AROZENA OSTATUA**  
*Gosariak eta bazkariak*  
ongi pasa inauteriak

Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa: 948450443

**IRRINTZE**

**AURTENGO**  
INAUTERIAK UMORE  
EDERREAN  
PASATU

Merkatarien kanika 28  
Telf.: 948 451826

**OSTATUA** DONEZTEBE

**EDERKI** tailerra

PEUGEOT

Peugeot eta Citroën  
Agente Ofiziala

**24 orduz grua**  
zerbitzua

CITROËN Hidraulika "tatigiloen" moldaketa

Leitzako bidea • 948 450525 DONEZTEBE

**OLAZAR**  
aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- itxiera metalikoak
- aluminio aroztegia
- estruktura metalikoak
- zerrailgintza
- galdaragintza
- ate baskulatzailak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1  
Tfnoa - Faxa:  
948 456 183  
Mugikorra:  
649 139 365  
DONEZTEBE



## karrozak

Inauteriak ortzegunarekin hasiko badira ere, **egun nagusia larunbata izanen da**, karrozen eguna. Ez du beharbada Sunbillako inauterietako karrozen desfileak adinako oihartzunik inguruan zein kanpoan, baina urtetik urtera gero eta indar handiagoa hartzen ari dira Doneztebe-ko karrozak. Orain dela urte batzuk arte, 15 urtetik goitiko gazteak baino ez ziren karrozak egin eta karrikara ateratzen zirenak. Orain, ordea, ekimena zabaldu egin da eta gazteek ez ezik, haur eta helduak ere ateratzen dira.

Karrozen desfilea gero eta gehiago hedatzen ari den seinale da karroza kopuruak izan duen gorakada. Joan den urtean inoiz baino gehiago egin ziren, eta halaxe baieztatu digu **Eduardo Oiartzabal** zinegotziak: *"iaz hamar bat karroza atera ziren, eta karroza gehien atera diren urtea izan zen"*. Baina karrozez gain, gisa guztietako mozorroak ikusteko aukera izaten da desfilean. Merezi du bai karroza eta mozorrorik onenak karrikaratzea, sariak ere banatzen baititu Udalak. Aurten ere hala izanen dela ziurtatu digu Oiartzabalek.





**«Joan den urtean hamar bat karroza atera ziren, eta karroza gehien atera diren urtea izan zen»**

Eta guztia prest egon dadin, Udala Eguberrien ondotik hasi zen pres-taketa lanetan. Inauteriak Udalak antolatzen ditu Donezteben, baina egitaraua zehazteko gazteekin bil-du ohi da. Inauterietarako oraindik ia bi aste gelditzen badira ere, las-ter ailegatuko dira egunak, eta se-guru, karrozak akituak ez badaude, akitzear egonen direla. Ea bada, zein-entzat diren aurtengo sariak!



**MAYLIN OSTATUA** **ONGI PASA INAUTERIAK**

- Bokadiloak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak

Parroquia 15, DONEZTEBE  
Telefono: 948 45 03 66

**Bar EL CAFE** **ONGI PASA INAUTERIAK**

Parroquia 3 - T: 948 450318 - DONEZTEBE

**BIXEN** ostatua

Bokadillo eta pintxo onak

948 450 383 - DONEZTEBE

**Juantxo San Miguel**

Iturgintza • Kalefakzioa • gasa

Telefonoak: 948 450 866 • 626 112 415  
Elzagola, 2 • 31740 DONEZTEBE

**Mailposta Buzoneos**

Publizitate banaketa  
Inprimategia  
Discinu grafikoak

Altzagorena Etxea • 31793 NARBARTE (Nafarroa)

katalogoak • kartelak  
logotipoak • kartazalak 948 502 313  
tarjetak • enrritu mutua 686 747 713  
pegatinak • foilletuak... 609 404 229

www.mailpostabuzoneos.com



## Mendaur Motor

Leitzako errepedea  
T: 948 450 333  
DONEZTEBE





DONEZTEBE



ITZULPEN LANAK EGITEN DIRA  
2007/2008 kurtsorako matrikulazio  
epea zabalik, plaza mugatuak  
**Ongi pasa inauteriak**

Elizagibela, 7 behea - 31740 SANTESTEBAN  
Tfno: 626 908 076 • angieacademy@hotmail.com



**A1 - A - B - BTP**  
**C1 - C eta E karnetak**  
**ateratzen ahal dira**

**ONGI PASA INAUTERIZAKI**

☎ 948 451 929  
Leitzako errepidea, 2 behea - DONEZTEBE



**DONEZTEBEKO**  
**UDALAK**

**Inauteri zorionsuak**  
**opa dizkizue doneztebar**  
**eta bisitari guztiei**



egitaraua

**OTSAILAK 19** ortzeguna

20:00 Triki poteoa  
21:00 Afaria Aranzoko Elkartean, akordeoiarekin

**OTSAILAK 20** ortzirla

09:30 Baserrietan eskea  
14:00 Bazkaria Aranzoko Elkartean  
17:00 Baserrietan eskea  
21:00 Kuadrilen afaria

**OTSAILAK 21** larunbata

12:00 Bazkaria Arozena ostatuan  
16:30 Karrozen desfilea Aparandik aterata  
22:00 Kuadrilen afaria  
**CORCOR TXARANGA**





**SOBRINO**  
ostatura  
Santiago - ELIZONDO  
948580023

INAUTERIAK pintxoak bokatak plater konbinatuak

bar restaurante  
**TXOKOTO**  
ostatu jateketa  
Tfn.: 948 580 348  
Braulo Inarte, 25  
ELIZONDO

948 580 312

**FANTXIKE** Origi pasta inauteak!

Mertzeria · Opariak · Lentzeria  
HAUR, GAZTE eta HELDUEN ARROPA  
Jaime Urrutia, 15 · ELIZONDO

**INSTALACIONES ARKALE c.b.**

- Gas instalazioak
- Iturgintza orokorrean
- Kalefakzioa eta Aire egokitua
- Mantenu lanak
- Zintzilikatuta egiten diren lanak

Tel. 943 492 912 - 610 509 177  
Amezta, 10 - DONEZTEBE

carniceria harategia  
**Esarte**  
ELIZONDO 948 580 128  
DONEZTEBE 948 456 152

## egitaraua

### OTSAILAK 20 ortzileria

10:00 Mozorroen elkartzea gaztetxe parean, gero puska-biltzera gateko.

14:30 Bazkaria

17:00 Haurren desfilea

19:00 Txokolate-jatea eta mozorro elkartzea, bandak lagundurik.

Ondotik Mozorroen ibiladia musikariek

22:00 Jantzilo erretzea plazan. Dantzak eta gaueko luntxa

### OTSAILAK 21 launbetia

11:00 Mozorroen elkartzea. Zopa eta ziztor jatea Ikastolako parkean

Ondotik txaranga-poteoa herrien barna Muniarteraino


14:30 Herri-bazkaria Antxitonean. Txartelak salgai ohiko tokietan.

18:00 Mozorroen desfilea txaranga lagundurik

**«Asteartearekin egiten dena galtzen ari zela-eta, gazte batzuk inauteriak indartzeko lanean hasi ziren, eta gai bat paratu eta denak horren inguruan mozorrotzeko ahalegina egin zen, baina ez da berreskuratu»**

Dudarik gabe, aurtengo Elizondoko inauterietako nobedadea egun aldatuta izanen da. Berez, inauteriak astelehen eta asteartearekin izaten dira, baina astegunez egiteak jendearen parte-hartzean beherakada nabarmena izan duelako, aurtuen estreinakoz ortziral eta larunbatean izanen dira.

Herritar gazte talde baten eskaria izan zen eta halaxe eskatu zuten abenduaren 14an egindako Batzarrean. Ilbeltzaren 6an **Xabi Torres** ek alkate kargua hartu zuenerako airean zebilen proposamena, baina berak ez du gaizki ikusi aldateta: "Asteartearekin egiten dena galtzen ari zela-eta, gazte batzuk inauteriak indartzeko lanean hasi ziren, eta gai bat paratu eta denak horren inguruan mozorrotzeko ahalegina egin zen, baina ez da berreskuratu", dio Torresek. Aldaketak aldateta, Baztanen astearteak segituko du besta eguna izaten. Aurtengo berrikuntza nola joaten den ikusita, heldu den urtean ikusiko da zer erabakitzen duten elizondarrek.





**Dia %** Inauterietan otordu goxoak prestatzeko LESAKAKO DIA

**Dia %** Plaza Berria, 10 - 948 637 335

**IÑAKI** Arretxea, 12 948 638 287

janaridenda

**TRANSPORTES IRIGOYEN**

629 592 215 - Biurtona Ouzoa, 1 - LESAKA

ONGI PASTA INAUTERIAK

**KASINO** OSTATUA - RESTAURANTE

ongi pasa inauteriak

Plaza Zaharra - 948 63 72 87 LESAKA

**bixkiak** arropa denda KIROL ETA MODAKO ARROPA DENDA

%50 arteko deskontuak

Arretxea, 7 B2 - LESAKA - 948 638 110



# Zaku-Zaharrak

Lesakako inauterietan protagonistarik bada, horiek Zaku-Zaharrak dira. Belarrez betetako zakua eta kua-drodun atorra soinean, aurpegia zapi zuriarekin estalia, lastozko kapela buruan eta pizontzia eskuan daraman Lesakako pertsonaia. Urteak dira inauterietako igandearekin, arratsaldean, Zaku-Zaharrak kalejira ibiltzen direla herrian barrena. Francoren diktadura garaian kendua egon zen, aurpegia tapatua ibiltzea galarazi zutelako. Dena den, baina gerora, Herriko Etxean horren berri emanda, baimena lortu zuten. Gaur egun, jendetza erakartzen duen ekitaldia bihurtu da.

Berrogei lagun inguru elkartuko dira aurten ere Zaku-Zahar gisa ibiltzeko. **16:00ak aldera** gelditu eta zakua belarrez betetzen joan dira, eta poliki-poliki josten. Hartara, guztia prest egonen da ilunabarreko: **19:00etan** aterako dira. Kari-kari ibili ondotik, Lesakako plazan bukatuko dute itzulia. Han plaza inguratzen duen paretan soka paratu eta Zaku-Zaharrak soka horretara lotuta daudenean, jendeak tiraka zakua kenduko dizkiete.

Zaku-Zaharren adinez galdetuta, jende gaztea ibiltzen dela erantzun digu Susperregik: "belarrak bero haundia ematen du eta karga hartzen da. Hori dena garraiatu beharra dago... Kalejira nagusia atera aitzinetik, hurrek euren kalejira egiten dute, baina gurasoen ardurapean egoten dira. Nagusian, ordea, norberak bere buruaren erantzukizuna hartu behar du".

Baina dena prest egon dadin, Arrano Elkarteko sei laguneko taldea as-

paldi hasi zen lanean. **Amagoia Susperregi** Arrano Elkarteko kideak azaldu digunez, Eguberriak pasatuta hasi ziren prestatzen. "Lanak banatu genituen. Batzuek pizontzien ardura hartu zuten, bertzeek belarrarena, zakua bertzeek...". Behin dena martxan dela, Zaku-Zahar gisa atera nahi duten guztiak deialdi publiko bat egiten diete.

Hitzordua egina dago, beraz: **19:00etatik aitzinera herriko kari-karietan barrena.** Lesakako inauterien doinuarekin kalejira ibiliko dira Zaku-Zaharrak, bidean harapatzen dituztenak pizontziarekin tentatuz eta zirikatuz.







**«belarrak  
bero haundia  
ematen du  
eta karga  
hartzen da.  
Hori dena  
garraiatu  
beharra  
dago...»**



**ESTHER ATEAK**

Egurrezko eta aluminiozko  
lan mota guztiak

Zarandia 9 • Tel/Fax. 948 627 564 • LESAKA  
M. 626 500 459 • esther-ateak@terra.es

**IÑAKI  
OLAIZOLA**

elektrizitatea orokorrean

Bititiria, 39 • LESAKA  
Tfnoa: 948 637 405 • 670 417 499

ONGI PASA INAUTERIAK

**oreka**  
nutrizioa eta dietetika  
santia legasa orea

- Senda-belarrak, elikadura, produktu ekologikoak, kosmetika naturala...
- Dietistas-nutrizionista kontsulta
- Terapia naturalak: Sendatu, Reiki, Reflexologia, masajek...

OREKA - arrotza 7 - 31720 Lesaka  
T 948 63 73 73  
www.oreka.es

**Juan Luis Otxoteko**  
pintorea

Etxe barrunean  
eta kanpoko pintura  
Gotele  
Pintatutako papera  
Enpapelazioak

Inauteri  
zoriontsuak  
pasa!

Esakatu aurkeztutua  
inongo konpromisoa izan  
gabe.

Mugakorra, 678 990 878  
Bititiria 26 3 B Lesaka  
Tel. - Fax 948 637 902



Sevilla Alameda Principal OPTICA OPTICOMETRIA

**intzuri**  
OPTICA

Edificio 36 LESAKA  
t. 948 627850

**Barceló**  
BIDAIAK

ONGI PASA INAUTERIAKI

Plaza Zaharra, 4 • 31770 LESAKA (Nafarroa)  
Tfnoa: 948 638 173 • lesaka@barceloviajes.com

**APITTU** ALUMINIOAK

ONGI PASA INAUTERIAKI

Aluminiozko leihoak, Kontraleihoak, Ateak  
Garajeko ateak eta Barandilak

Ossango Auzoa, 7 - Pab. - LESAKA • Tel/Faxa: 948 638 297  
apittu@telefonica.net

**izarra**  
okindegia

ongi pasa inauterian!

Tel: 948 637 855  
Plaza Zaharra, 13 - LESAKA

garbiketak - limpietas

**usi**

**MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK**

- Bulegoak, portalak, etxeak, kristalak, garbiketa orokorra eta eraikuntza lanetakoak
- Industria-makinekin lan egiten dugu
- "Fregado en plano" delakoa
- Produktu profesionalak zabalduen aukerak, sikinak...

T. 689 305 221 (Oihane) LESAKA



**egitaraua**

**OTSAILAK 19** osteguna  
**Arraultze-arraultze eguna**  
Herriko haurrak etxez-etxe ibiliko dira Arraultze-Arraultze eskean.

**OTSAILAK 22** igandea  
**17:00** Trikitixa taldeak lagunduta eta Plaza Zaharretik abiatuz, **mairu eta Zaku zahar txikien kalejira** herrian zehar.  
**19:00** Dantzaldia Plaza Zaharrean.

**OTSAILAK 23** astelehena  
**8:00** Fraindarrak eta Goitarrak "arraultze arraultze" ibiliko dira baserrietan zehar.  
**12:30** Iñauterietako orgak Plaza Zaharrean.  
**19:00** Dantzaldia Plaza Zaharrean.

**OTSAILAK 24** asteartea  
Fraindarrak eta Goitarrak "arraultze arraultze" jarraituko dute.



BERA



# Inude eta artzainak

Bi aste barne hasiko dira inauteriak Euskal Herriko hainbat eta hainbat tokitan. Baita Beran ere. Eta Bera-ko inauterietako pertsonaiarik ezagunenak, dudarik gabe, **inude eta artzainak** dira. 29 urte beteko dituzte aurten inude eta artzainek Beran eta Donostiatik datorren ekitaldia den arren, beratarrek herrira egokitu zuten bere garaian. Gipuzkoako hiriburuan inudeak emakumezkoak dira eta gizonezkoak artzainak. Beran, ordea, alderantziz egitea erabaki zen, *"inauteriak dira probextuz"*. Hala azaldu digu Maria Barredo Gure Txokoa Dantza Taldeko arduradunak.

Gure Txokoa Elkartea izan da betidanik inude eta artzainen ekitaldia antolatu izan duena, zehazki, Gure Txokoa Dantza Taldea. **Maria Barredok** urteak daramatza antolaketan baina aurtengoa azkena izanen du. *"Gazteagoak mugitzen hasi dira eta eurek nola antolatu ikas dezaten, aurten garaiz hasi gara prestatzen"*, erran digu Barredok.

Haur zein gazte, jende andana ateratzen da inude edo artzainez jauntzita inauterietan. Ttikienak Ortze-gun Gizenarekin, aurten otsailaren 19an, eta helduagoak igandearekin, otsailaren 22an. Prestaketa lanak ere hasiak dira, eta ikastetxeetan adibidez, entseguetan dabilta. Maria Barredok Berako ikastetxe batean egiten du lan eta aitortu digunez, aste batzuk daramatzate haurrei dantzak erakusten. Egun haundia ailegatzean, berriz, 15:45etik aitzinera karrikaz karrika ikusiko ditugu.

Helduagoen txanda igandean izanen da, otsailaren 22an. Igande horretan, 10:00ak aldera Eztegarra pilotalekuan elkartu eta handik hasita osatuko dute ohiko itzulia. Karrozak, Musika Bandak eta konpartsak ere ez dute hutsik egingen. Hiru dantza dira inude eta artzainen errepertorioa osatzen dutenak eta goiz guztian horiek dantzatzen ibili ondotik, Zubiondo jatetxean elkartuko dira bazkaltzeko. *"100 bat lagun"*, **Barredok** erran digunez. Arratsaldean ere segituko du bestak, eta Eztegarra pilotalekutik Altzatera joan eta Altzateko plazan itzulia egingen dute inude eta artzainek. Dantzez ongi oroitzen ez dena, garaiz dabil oraindik ikasteko. Otsailaren 19an eta 20an entseguak egingen dira, 20:00etan Eztegarra pilotalekuan.

## Beratarra edo hurbilekoa

Inude eta artzainetan ateratzeko **baldintza bakarra** beratarra izatea da, *"nahiz eta azken urteotan bikotekidea beratarra dutenak ere onartzen diren"*, dio Barredok. Eta hortik aitzinera besta giroa nagusi. Izan ere, Barredok azaldu digun bezala, *"egun berezia izaten da beratarrontzat"*.

## Gure Txokoaren alde

*"Kanpoko jendeak ez daki eta beratar aunitzek ere ez, baina inude eta artzainak karrikaz karrika dabiltzanean batzuk dirua biltzeko eskean ibiltzen dira"*. Horixe kontatu digu Barredok. Gure Txokoa Elkar-tearentzat izaten da diru hori, nahiz eta elkar-teak inude eta artzainei ematen dien dirua, bazkarirako.

Kalzaberg Alubi, 6 Donostia Etxe 31770 Lezeka-Narotza  
Tel: 948 627 554 - 656 763 186

**Txus Ubiria Andueza**  
margoketa lanak - pintor

ONGI PASA INAUTERIAK

**ION DOZAGARAT GIL**

*Igeltseritza orokorra*

Itzea, 5 • BERA • 689 046 720

**Haritza**  
belardenda  
Ongi pasa inauteriak

MASAJISTA  
MEDIKU NATURISTA  
KONTSULTA

Legia, 1 behea  
31780 BERA  
Tel.: 948 63 06 52

**ARTIEDA ESTANKOA**  
Estanco Nº 3  
Cava de Puros

Plaza Oñate 1 - Donostia  
31701 Bera  
Tel. 948 63 62 07  
Tel. 948 63 63 64  
www.artieda.com

**Kulturkari**  
948 635 458  
kulturkari@bera.net

**Juan Ignacio Oartzabal**

ONGI PASA INAUTERIAK

948 630 304  
Ipar karrika, 15  
BERA

**ARKITEKTOA**

**DISFRACES LA MASCARA**

mascara@cin.es  
www.lamascara.es

Abejeras, 6 • Tel-Fax: 948 25 00 04 • IRUÑEA

- Inauterietako maskaroen dis-diera daukagu
- Era guztietako materialak
- Makillaje profesionala

**BAR RESTAURANTE EYSKALDYNA**  
 Casa fundada en 1912  
 Bidasoa 5, BERA  
 Tel. 948 630 392 - 948 630 907

**INAUTERIETAN MENU BEREZIA**  
**15 €**

**Tximistindar**  
 ELEKTRIZITATEA - INSTALAZIOAK  
**ETXE • INDUSTRIA**  
**ARGI APAINGARRIAK**  
**EGUZKI PLAKAK**  
 ONGI PASA INAUTERIAK

Askoin, 12 - 4.Ezk • 31780 BERA  
 ☎ 948 63 08 54 / 948 63 14 52  
 639 608 034 / 639 125 046

**TEORIAKO IKASTARO INTENTSIBOA**  
**15:30 - 18:30**  
 Tel. 948 630 298 · Eztegarra, 26 BERA

**autoeskola**

Jorge Sapeña Colomera  
**ODONTOLOGOA**  
 Colegiado 223  
 Itza, 1-1ª  
 31780 BERA (Nafarroa)  
 Tel.: 948 63 06 47

ongi pasa inauteriak



egitaraua

**OTSAILAK 18** asteazkena  
**inauteri besta**

- 16:30** Kalejira Beran barna, zahar etxea bisitatuz (euria ez badago)
- 17:00** Berendua Musika Eskolan  
 Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

**OTSAILAK 19** ortzeguna  
**ortzegun gizona**

- 15:45** Haur eta gaztetxoek inudeak eta artzaiak. Suhiltzaileen parketik Kultur Etxera (Eguraldi txarra eginez gero 16:00etan, Eztegarako frontoian)
- 16:30** Haurrentzako Dantzaldia Kultur Etxean XURDIN taldearekin.

**OTSAILAK 21** larunbata  
**kaldereroak**

- 19:00** Kaldereroak Illekuetatik Herriko Etxeko plazara (Eguraldi txarra eginez gero, Altzateko frontoian)

**OTSAILAK 22** igandea  
**inudeak eta artzaiak**

- 10:00** Inudeak eta artzaiak goiz osoan herrian barna, Eztegarra pilotalekutik hasita
- 18:00** Eztegarra pilotalekutik Altzate karrikara

**OTSAILAK 23** astelehena  
**zingar-arraultzea**

- Goizean Zingar-arraultzea goizea zehar
- 19:00-20:00** Les tambours de Feu  
 (Deabru Beltzak taldearen ikuskizuna)

**ENTSAIOAK**  
**KALDEREROAK**

- otsailaren 17 eta 18  
 19:30 Kultur Etxean

**INUDEAK ETA ARTZAINAK**

- otsailaren 19 eta 20  
 20:00 Eztegarra pilotalekuan

OHARRA: Bazkariko txartelak salgai entsaio egunetan



**BERAKOUDALA**  
 AYUNTAMIENTO DE BERA  
 ONGI PASA INAUTERIAK

**IRIGOIEN ELORTZA**  
**ARRAINDEGIA**  
 ONGI PASA INAUTERIAK  
 Enkarguak hartzen dira



948 630 881  
 820 828 787  
 BERA

**PRIETO**  
 tabakodenda  
 egurkarlak, adizkarlak...  
 Legia, 1 • BERA • 948 631 248  
 ONGI PASA INAUTERIAK



**SUSANA JANARIDENDA**  
 ONGI PASA INAUTERIAK  
 Foruen Plaza, 6 • BERA • Tfnoa: 948 631 313

**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK JAURENA**  
 Julio Caro Baroja, 6 behea  
 31780 BERA • Nafarroa  
 Tel/Faxa: 948 631 217



ongi pasa inauteriak  
**cenor**

**Merkaopari**



**DONEZTEBEN ELIZONDON BERAN**  
 Goizez 9:00-13:00 - Arratsaldeaz 16:30-20:00  
 Astelehenetik larunbatera

*erne, aprobetxatu eskantzi!!*



**TOKI ONA KIROLDEGIKO abonatuaren prezio berriak**

Urteko prezioa	Urteko prezioa	Urteko prezioa	Urteko prezioa
URTEKOA	50€ Saharabakoak erabat	15€	Hilabetez ordaintzen daramen denak Gomendio, 200 libro guzuz eta 100000 kilometro jantzi Santitas, jantzi Santitas eta giteko abonatuaren prezio berriak instituzioak
HEGUA (Larri-merkatu)	40€ Saharabakoak erabat	17,50€	Hilabetez ordaintzen daramen denak
IRAKURLAGITZEA	20€ Saharabakoak erabat	6€	Urteko agian daramen denak Santitas, jantzi Santitas eta giteko abonatuaren prezio berriak
HILABETEKO	15€ Saharabakoak erabat	7€	Urteko agian daramen denak Santitas, jantzi Santitas eta giteko abonatuaren prezio berriak

**HILABETEKO ORDAINKETA MODU BERRIAK, KIROLA EGITEKO ETA KRISIA LEHIATZEKO**  
 Hurbildu zure instalakuntzara eta galdetu:  
 Toki Ona Kintologia, Julio Caro Baroja 2,  
 31780 Bera. Tel: 948 630215



**EDARRIAK**



**MANUEL TABERNA S.L.**  
 Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
 Tel. Fax: 948 63 10 27

**ELKAR S.A.**  
 Tailerrak




- Pieza eta makinaria moldaketa
- Harrobi makinaren fabrikazioa
- Nabean proiektu eta eraikuntzak
- Galdaragintza
- Estructura altzatzeak

Zabala Ind. - BERA  
 Tel: 948 631 813  
 Fax: 948 630 929

**ONGI PASA INAUTERIAK**

**besta**



**tout pour la fête**



*gara ihauteriak!*

- \* Euskal jantzi herrikoiak, txapelak, zapiak, ...
- \* Petardo eta suziriak.
- \* Mozorro eta osagarriak
- \* Sariak
- \* Bestarako ontziteria

**irekia astelehenetik larunbatera 9'00etatik 13'00etara eta 14'00etatik 19'00etara**  
**Geltokiko karrika, 13 rue de la Gare - 64700 HENDAIA - Tel.+33.559483758**

## ARESO

## Eskolako fatxada konpontzeko proiektua aurkeztu du Udalak Espainiako Gobernuaren dirulaguntza deialdian

Langabezian dauden hiru lagun kontratatuko dira lanak egiteko

**Juana Mari SAIZAR**

Eskolako fatxada berri eta pintatu egin nahi dira. Horrela onartu zuen Udalak bere azken batzarrean. Espainiako Gobernuko Zapatero presidenteak estatuko herri guztientzat iragarri duen dirulaguntzarekin obra horiek egingo dira, eta deialdia eskatzen zen baldintzetako bat betetz, langabezian dauden hiru lagun lanean ariko dira 61 egunez.

Eskola Kontseiluari aurreko asteetan eman zitzaion honen berri. Guraso Elkarteak bi kide berri –Estitxu eta Igone–, eskolako zuzendaria eta

hezkuntza zinegotzia bildu ziren. Eskolaren atzekaldean dagoen esparrua eta kirol desberdina egiteko erabili nahi dena, beste urte batez, Nafarroako Kutzaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* proiektuan sartu dute, iaz nahiko diru gutxi lortu zelako. Hori eginez gero, eskola ingurua berriua geldituko litzateke.

### Eliza txukun

Elizako obrak bukatuak daude dagoeneko eta orain hemendik aurrerako garbiketa gelditzen da. Momentu honetan garbi dago, baina nolabaiteko jarraipena



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### Bataiarria tokiz aldatua

Elizako obrarekin batera bataiarria kanpora ateratzea pentsatu zen, ikusgarria izateaz gain, Elizak duen gauzarik zaharrena delako. Orain arte pareta barrenean sartua egon da, baina orain kanpoaldean jarri da. Urtarrilaren 25ean, Maddi eta Eunatze izan ziren toki berrian bataiatutako lehen umeak.

eman nahi zaio horri. Orain arte, familia guztiek osatutako zerrenda bat zegoen, baina gaur egungo egoera aldatuenez, proposamen berria egin da: nahi duten guztiak hilabeteko

azken ostiralean 15:30-etik 16:00etara bilduko dira garbiketa lanak egiteko.

Bestalde, igandeko mezaren ordua aldatu egin da eta orain 12:15ean emango da.

Azkenik, esan, obrak direla-eta, aurtengo ikasturtean oraindik katekesia martxan jartzekoa dela. Horri buruz hitz egiteko bildu ziren duela bi larunbat umeak, katekesi irakasleak eta apaiza.

egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649789 elizondo · braulio lizarbe 33, 1ºD · 31700  
948250371 inuñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

**Pitti**  
eskabaziloak  
Tel: 616 513 491

Mendialdea etxea, 34 ZUBIETA

**ttipi**  
**ttapa**  
☎ (0034) 948 635458

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- ☛ Langile autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-Kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berriz egiteko sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbaritasun eta jubilazio espedienteak
- ☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bitirio, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

**Lizardi**  
Telekomunikazioak

TDT Instalazioak  
TB Instalazioak (satelite, lurrekoak)  
Instalazio indibidualak eta kolektiboak  
Portero automatikoak  
Ebeko hari musikala

Tel. 670 415 720  
joanlizardi@hotmail.com

## ARANO



ARGAZKIAK: AINHOA ANSA

Inauteri eguneko arratsaldean dantzatuko da Zahagi Dantza.

## Dena prest otsailaren 14ko inauteri egunerako

Zomorroetan ateratzeko otsailaren 12a baino lehen eman behar da izena

### Ainhoa eta Kontxi

Badatoz, badatoz... korneten orroak! Badatoz trikitixa eta panderoaren laguntzaz galtzetako eta zapeletako koxkabiloen soinuak! Badatoz etxez etxeko ohiko bisitak eta jendearen algarak!

Etorriko da, beti bezala, etxean duen soinekorik politena jantzita norbait. Besteren bat, zaku zahar bat burutik behera sartu eta begiak besterik bistan ez dituela! Astoaren gainean, agian, andaluziarren bat Rociorako bidean galduta, edo akerra ondoan duen arabiarren bat beharbada?

Gehienak, dantzarien ohiko jantziak, dotore azalduko dira goizean, alkandora zuria-zen bizkarreko aldean koloreetako zintak zintzililik dituztela. Beste asko, berriz, alkandora loredun bizia jantziko dute. Zinta zuri gorri eta berdeak galtzetan itsatsitako morletatik zintzililik eta txintzarriak edo koxkabiluak zomorroak non dabiltzan salatuz!

Arratsaldeko Zahagi Dantzak pertsonaiak ez dute goizekoan antzik izango! Bi pertsonaia xeble hauek herriko zoko guztietan gordez ibiliko dira. Zahagi Dantzaren doinura atera egin beharko dute,

ordea, zomorroen dantzaren erdian ahal bezala dantzatzuz!

Dantza eta algararik ez da faltako hilaren 14an. Prestatu jualiak, kornetak, koxkabiluak, koloreetako zintak, morlak eta zapelak! Zomorroak presta daitezela, badatoz eta inauteririk!

### Otsailak 14

- Goizean Kontzejun elkartu eta baserrietan itzulia, Izer eta Alabier trikitilariekin.
- Eguerdi San Roke elkartean bazkaria.
- Arratsaldean Zahagi Dantza.
- Gauean, herri afaria, San Roke elkartean.
- Afalondoren, Imuntzo eta Belokiren eskutik dantzaldia.

Zomorroetan atera nahi duenak izena eman dezake Kontzejun hilaren 12ra arte.

### Alkatearen lansaria

2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, alkatearen ordainsari eta dedikazioa onartu zuen Udalak. Ordainsari garbia 600 eurokoa izango da hilean. Udalak bere gain hartuko du Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa kuota eta dedikazioa eskusiboa izango da.

# Bidean

NAFARROAKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA

09

[www.nafarroakotxapelketa.com](http://www.nafarroakotxapelketa.com)

**Azken-laurdena:**

Otsailak 7

Igantzi

Jubilatuen Elkarte

17:30

Iñigo Olaetxea, Iker Gorosterrazu,  
Oier Lakuntza, Eneko Lazkoz,  
Julio Soto, Garaxi Taberna

Nafarroako

Bertsotzale

Elkartea



Laguntzailea:

# ttipi-ttapa

## LEITZA

# Eguraldi petralarekin joan dira aurtengo ihoteak

Atsaureen agurrarekin ihoteen amaiera etorri zen

## Asier IMAZ

Lau egunetan ha- maika ekitaldi ospatu bal- din baziren ere, Atsau- rek eta baserrietako es- kea azpimarratu behar dira, Gurdiekin batera. Garai bateko Leitza- ko mozorroak oinarritzat hartuta, atsaureak kale- ra irten ziren igandean eta asteartean. Kalejiran ibiltzeko orduan euriak zalantzak sortu bazizkien ere, paperezko txapelak jantzita, txarangarekin batera karriketan barna ibili ziren.

Baserritako eta kale- ko eskea, lehenik kale- an eta gero baserrietan, egunero egin zen. He- rritar ugari irten zen ka- lera goizean goizetik xis- tulari edota txarangare- kin puskak biltzera. As- telehenean, euria gutxi ez eta elurra ere lagun izan zuten Basakabi in- gurutetan.

## Amaiurko guda gogoratzeko

Gaztelak Nafarroa konkistatu zuen Amaiur- ko gudan 1512. urtean eta 2012an 500 urte be- teko direnez, Amaiur 1512-2012 Nafarroa Bi- zirik taldeakekimena an- tolatu otsailaren 1ean,

Gaztelak Nafarroa kon- kistatu zuen sasoi hura biziberritzeko. Euskal He- rriko udal eta kontzeju guztiei egin zieten deia, batzarretan bat egiteko testua onar dezaten eta ekimenarekin bat egiten lehenengotakoa Leitza izan zen. Xabier Zabalo alkatearen hitzetan, «*de- non artean historia uler- tzeko beste modu bat in- dardu nahi dugu*».

## Zinema aurrera

Asteburu honetan eta datozenetan hainbat film egonen dira ikusgai. Os- tiral eta igande honetan, Olivier Assayas zuden- dariaren *Las horas del verano* filma izanen da ikusgai. Otsailaren 13an eta 15ean, berriz, Mateo Garronerren *Gomorra* ikusteko aukera izanen da. Beti bezala, emanal- diak ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean izanen dira.

## Unai Zabaleta eta 'Oh Happy Day'

Unai Zabaleta Karra- pe Irratiko esateria epai- le lanetan hasi da ETB- 1eko 'Oh Happy Day' rea- lity berrian. Saioa larun- batetan emititzen dute 22:00etatik aurrera.



ARGAZKIAK: ASIER IMAZ

Ekitaldi guztiak giro onean joan ziren, eta jendearen parte-hartze haundiarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Merkatarien zozketako saridunak

Herriko merkatari zentruetan *onddoen bila* jende ugari ibili ondoren, hiru onddo saridunak aurkitu dituzte. Zozketa egin ostean, lehen saria Maritxu Lazkanok lortu du, 500 euroko erosketa balea. 300 euroko erosketa balea, bigarren saria, Sagrario Razkinek irabazi du. Hirugarren sarituak 200 euroko balea lortu du, Ana Zabaletak, hain zuzen. Saridunek herriko 33 tailer, ta- berna eta komertziotan eginiko zozketan hartu zuten parte, orain hauetan erosketak doan egin ahal izango dituzte. Orain dendari, tabernari eta aba- rek buruan duten hurrengo pausoa Merkatari Elkartearen sortzea izanen da.

**suteia**  
INSTALAZIOAK

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
suteia@suteia.com



Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu



**GOIZUETA**

## Udalak aho batez onartu du Guraso Elkarteari eman beharreko dirulaguntza

8.680 euroko gastua egin zuen 2008an Guraso Elkarteak eta Udalak 3.519 eman dizkio

**Esteban AROTZENA**

Inolako eztabaidarik gabe eta aho batez onartu zuen Udalak Guraso Elkarteari eman beharreko subentzioa. Iaz burututako ekintzen zerrenda aurkeztu zuen urtero bezala Elkarteak. Herriko Etxeak, bere aldetik, urteroko portzentajearekin lagundu zuen diruz ekintza bakoitza.

8.680 euro gastatu zituen 2008an Guraso Elkarteak eta 3.519 jaso ditu udaletxetik. Udan burututako igeriketa ikastaroaren autobusa ordaintzeko 3.595 euro erabili zituzten, %30eko subentzioa jasoz, ia 1.800, alegia; Amabirjinetan 3.087 euro gastatu zituzten, 1.040 euroko laguntza jasoz. Ordenagailu baten erosketak, Artikutzako irteerak eta beste

hainbat gastuk osatu zuten Guraso Elkarteak Herriko Etxeari aurkeztutako zerrenda.

**Arau subsidiario berriak ikusgai**

Nafarroako Gobernuak behin betiko onarpena eman die azkenean planeamenduko arau subsidiarioei. Aurrekoekin alderatuz sakoneko aldaketak eman direnez, Udalak Ganbaran ikusgai paratuko ditu otsailaren 20ra arte herritarrek behar adinako informazioa jaso dezaten. Dena den, **Ttipi-Ttapan** ere emanen dugu honen berri zabalagoa hurrengo aleetan.

**Berria Txapelketa herrian**

Udala, Umore Ona eta herriko pilotazale-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

**Sutarako egur loteak**

Sutarako egur lotea eskuratzeko bete beharreko baldintzak arautzen dituen ordenantzari behin behineko onarpena eman dio Udalak. Puntu garrantzitsuenak aipatuz, esan, Herriko Etxean ordaindu beharreko zergak egunean eduki beharko dituela eskatzaileak. Egurra nahi dutenen zerrendan izena eman baino urtebete lehenago herrian erroldatuta egon beharko du gainera.

merkatari taldetxo bati esker, Berria Txapelketa kanporaketa bat

Goizuetan jokatuko da hurrengo igandean, hilak 8. Arrasate eta Tolo-

sa neurtuko dira hiru partidatara, 11:00etatik aurrera.

*edredoi fundak*

*albornoak*

*edredoi nordikoak*

*ohe estalkiak*

*maindireak*

*mantelak*

*kuxinak*

*toailak*

**1951tik**  
**Casa Cambra**  
**lentzeria-etxea**

**Tafalla, 13 • IRUÑEA**  
**948 230 634**

**Aste txuria**  
**Merkealdia**

## BAZTAN

# Elizondoko Jaime Urrutia karrikako trafikoa arautzeko neurriak jakinarazi ditu Udalak

Astegunez 8:00etatik 20:00etara zabalik egonen da

## ttipi-ttapa

Joan den urteko abenduaz geroztik, Elizondoko Jaime Urrutia karrika erdi-peatonala da udaletxe paretik Ziga Plazara bitartean, eta hori dela eta, Udalak zenbait neurri hartu behar izan ditu ibilgailuen joan-etorria arautzeko.

Horren arabera, karrika asteleheneetik ortziralerara, trafikoari irekia egonen da 8:00etatik 20:00etara, lan egunetan. Larunbat eta jai egunetan, ordea, karrika oinezkoentzako bakarrik izanen da, ibilgailuentzat, beraz, itxita egonen da.

Karrika zabaldu edo itxteaz udaltzainak arduratuko dira, baina arrazoi jakinengatik karga eta deskarga dela-eta, baimena duten zenbait merkatarik ere zabaldu ahal izanen dute.

Larrialdi kasuetan udaltzainak, foruzainak, guardia zibilak, Osasun Zerbitzuetako langileak eta suhiltzaileak izanen dira karrikara pasatzeko aukera izanen duten bakarrak.

Karrika itxita dagoen ordutegian, auzotarrek edo merkatariek karrika

zabalik egoteko beharra baldin badute, guttienez astebete lehenago eskatu beharko dute baimena udaletxean.

Bertzalde, ibilgailuen geldialdiak ere arautu ditu Udalak. Baimendutako tokietan geldialdiek gehienez ere 15 minutu-koak izan beharko dute eta udaltzainak arduratuko hori kontrolatzeaz.

## Radarra Oronoz-Mugairi parean

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak abiadura kontrolatzeko bortz radar finko ezarriko ditu Nafarroako hainbat errepidetan aurten. Radarrak egonen diren toki batzuk finkatuak daude, eta Baztanen bat jartzekotan dira, N-121An, Oronoz-Mugairi baino lehenxeago.

## Haizeteen ondorioz kalteak

Duela bi aste, iragarria zen eguraldi txarrak gure eskualdean ere seinaleak utzi zituen: zuhaitz aunitz eroriak, karreterak eta bideak moztuak, Lekarozeko institutuan txapazko teilatu zati bat eramana, Erra-



UTZITAKO ARGAZKIAK

## San Anton Eguna Elizondon eta Erratzun

San Anton Eguna larunbata izaki, baztandar aunitz hurbildu zen urtarri-laren 17an Elizondora. Ohi bezala, egun horretan egin zen Francisco Joakin Iriarte Zahar Etxeari laguntzeko zozketa. Lehen saritua 9.130 zenbakiarentzat izan zen, baina momentuan behinik behin ez zen aretzearen jaberik atera. Zenbakia Oronoz-Mugairiko Patricia Mariñelarena botikan saldatukoa da. Bigarren zein hirugarren sariak egunean bertan, urtarri-laren 17an, atera ziren. Bigarren saritua, 7.739 zenbakia, Erratzuko Begoña Re-karte izan zen. Zerria jaso zuen erratzuarrak. Hirugarrena, berriz, Doneztebera joan zen -11.396 zenbakia-, eta Txelis Andueza-entzat izan ziren bi bildotsak. Elizondon ez ezik, Erratzun ere egun berezia izaten da San Anton Eguna, batez ere, emakumezkoentzat, eta aurten ere hutsik egin gabe, hainbat emakume elkartu ziren afaltzera -beheko argazkia-.

tzun behitegi bateko atehaundi bat, Almandozko eskola berriko zenbait teilak... Zenbait herritan zortzi orduz edo gehiagoz argirik gabe gelditu ziren, eta Zigaurren, adibidez, telefonorik gabe gelditu ziren.

## Amaiurko guda gogoan

Gaztelak Nafarroa konkistatu zueneko 500. urteurrena beteko da

2012an eta horren hari-ra sortu berri den proiektuak aitzinera segitzen du. Bertzeak bertze, Euskal Herriko udal zein kontzejuak ekimenarekin bat egin dezaten atxikimendu bilketa bat abiatua da. Joan den igande-azken, bertzalde, Amaiurko gazteluan Nafarroaren independentziaren alde aritu zirenak gogotan, ospakizun eguna izan zuten Amaiurren.

## Mendi irteeren berri zehatza Interneten

Baztango Mendigoizaleak-ek berrikuntza bat sartuko du laster Interneteko bere atarian: [www.baztangomendigoizalea.org](http://www.baztangomendigoizalea.org)-en. Astelehenero, hurrengo igandeko irteerari buruzko datu zehatzak emanen ditu hemendik aitzinera: hitzordua, ibilbidea, abiapuntua...

**POTTOKI**  
Baztanberr Plaza, 3 - beheak  
31700 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tfno.: 948 561 883  
info@pottoki.com  
www.pottoki.com  
Astelehenetik  
larunbatera:  
8:30 - 13:30  
18:30 - 20:00

**MENDIALDE**  
Jatetxea  
Tfno.: 948 45 3090  
N-121-8,66 km  
TAMAIUR

**MENDI**  
ostatua  
Santiago 25  
948 560 313  
ELIZONDO

## BAZTAN

# Larunbat honetan eginen da Gizakunde Eguna Arizkun eta Erratzun

Ohi bezala, besta Arizkunen hasiko da eta handik Erratzura joanen dira

### Maite OTEIZA

Gain-gainean dugu Gizakunde. Aniz, Berroeta eta Orabideko inauteriak pasatu dira eta larunbatean, otsailak 7, Arizkunek eta Erratzuk hartuko dute ospakizunen lekukoa.

Gizakunde Egunean, beti bezala, Arizkunen hasiko da besta, eta Erratzun segituko du gero.

### ARIZKUN

- 16:00etan Gamioxarrean *meriendatu* eta *mozorroak jauntzi*.
- Ondotik *sagardantza* desberdinak karriketan barna.
- 18:00etan *Erratzurako bidea* hartuko dute mozorro txuriek, beltzek, Hartza, hartzainak eta dantzariak musikariekin.

### ERRATZU

- 19:30ean herrian barna *itzulia eta eskea*.
- 21:00etan *Jantzioren epaiketa* eta ondotik erre eginen da plazan.
- 22:00etan *mozorro afaria* elkartean.
- Ondotik *besta* elkartean.

### Lekarozko obrak laster bukatuak

Lekaroztarrek urteetan jasan duten ur horridura arazoa laster desagertuko dela dirudi. Ur eskasia saihesteko egiten ari diren obrak due-la bi hilabete inguru hasi ziren eta antza, aste pare baten buruan bukatuko dira. Mariezcurrena enpresa ari da lana egiten.

Lekarozko depositura datorren ura Iruritatik dator, hainbat kilometro



ARGAZKIA: ARANTXA GAMIO

### Orakunderekin batera inauteriak ere hemen daude

Zenbait herritan inauteriak hasiz gero, haurren tenorea ere hurbiltzen da. Baztango 15 herrietan Egundun ttun-ttun, Oilar Dantza edo Orakunde Eguna hementxe dago. Orain 15 bat urte, txistulari eskasia zela-eta, herri batzuek ortzegunarekin ospatzen zena egunez aitzineratu edo gibeleratu egin zuten. Hala, Zigan aurten otsailaren 13an ospatuko dute, herriko inauteriekin batera; asteartean Amaiurren; asteazkenean Erratzun; ortzegunean herri gehienetan –Arizkun, Elbete, Elizondo, Gartzain, Lekaroz, Irurita, Arraioz, Oronoz-Mugairi eta Almandoz–; ortzilerian, otsailak 20, Azpilketan, eta biharamunean Anizen. Herri guztietan egitaraua berdintsua da, goizeko lehenengo ekitaldia meza. Ondotik, herrian barna eskean eta kalejiran ibiltzen dira, eguerdian bazkaria izaten da, arratsaldean jokoak, oilar harrapatzeak, eta txokolatada. Horrela pasatzen diete lekukoa gazteei hauek inauteriak ospatzeko. Aurtengo berrikuntza Elizondoko inauteriak dira, batzarre batean hala erabakita eta proba gisa, asteburuan eginen baitira. Arizkun eta Erratzun, beti bezala, astelehen eta asteartean ospatuko dituzte euren inauteriak. Argazkia Zigan etxez etxeko eskean ateratakoa da.

egin ondotik. Irurita baxerri auzotik abiatuta, Zigaurren beheiti jautsiko da ura eta Irurita herrira ailegatu ondotik Lekarozko depositura joanen da.

Xabier Elizalde Lekarozko alkateak **Ttipi-Ttapani** azaldu dionez, «7.400 metro hodi paratzen ari dira».

### Hiru baztandar Iruñeko Orfeoian

Urtero Nafarroako Gobernuak antolatzen duen eskola eta familia kontzertuan Baztango herrietako eskoletako haurrek parte hartu zuten Iruñeko Baluartean. Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta Iruñeko Or-

feoia izan ziren protagonistak, eta kontzertu ederra eskaini zuten.

Aipatzekoa da, Iruñeko Orfeoian hiru baztandar ari direla, Juan M<sup>a</sup> Aleman amaiurra, Javier Arizmendi elizondarra eta M<sup>a</sup> Angeles Urdaniz arraioztarra.

Carlos Garaikoetxea Etxenike abokatua

Telefonoa: 948 581 468  
Mug: 630 354 818

Santiago, 59 2C ELIZONDO

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

Txotx denboraldia irekia Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA Tolosa auzoa - LEKARIZ 948 493721 - 626 494317

LINDDURRENBORDA Nájaz auzoa - LEZAMA 948 627212

ANTXITONEA Trinketea

Jatetxea - Ostatua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karkia  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

## ZUGARRAMURDI

# Urte honetan egingen diren ateraldiak zehaztu ditu Atxuria Mendi Taldeak

Hilabeteko azken igandean egingen dira, urtarrilekoa izan ezik

## Margari eta Koro

Atxuria Mendi Taldeak prest du 2009an egingen dituen ibilaldien zerrenda. Urtarrilekoa izan ezik, bertze guztiak hilabeteko azkeneko igandean izanen dira.

Urtarrilean San Antona eta abenduan Aiako Harrietara joatea usaian beti berak izaten dira, baina gainerakoak aldatu egingen dira: Zortzi milak aukeratu du Mendi Taldeak otsailarako; Zugarramurdiko itzulia martxoan egingen da; Leizetako bordara ateraldia apirillean izanen da, Lesakara maiztean joanen dira, Donostiatik Oriorako bidea ekainean egingen da; iraillean Bera-Hendaia ibilbidea egingen da; urriari Senpereko lakura izanen da ateraldia eta aza-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

**Argazkia joan den abendukoa da Aiako Harrietan ateria. Txanpaina eramaten da harat, gan zaizkigun lagunak txin-txin egingez oroitazteko.**

roan Berroeta-Lantz bidea egingen da.

## Tiriteroen Topaketa

Titiriteroen VII. Topaketa prestatzen ha-

siak dira antolatzaileak. Oraingoan dakigun bakarra apirilaren 18-19ko aste hondarrean egingen dela da. Gainerako xehetasunak aitzinerago emanen ditugu.

## Dirulaguntza deialdian bai ala ez

Aitzineko asteetan Zugarramurdiz solasean somatu ditugu he-

dabideak, krisiari eta lan-gabeziari aitzin egiteko Espainiako Gobernuak iragarritako dirulaguntzen deialdian, Zugarramurdiko Udalak proiekturik aurkeztu ote zuen ala ez aipatuz. Hasiara batean, Gobernuak ez zela eskaerarik egin adierazi zuen, baina idazkariak Ttipi-Ttapari erran dionez, arazo batzuk izan arren, proiektua aurkeztu zuten. Eskaerak aurkezteko epea urtarrilaren 24an akitu zen. Idazkaria aitzineko egunetan ere saiatu zen bidaltzen baina ez zuela lortu kontatu dio Ttipi-Ttapari. Azken egunetan, ordea, berri saiatu zen eta Internetekin arazoak izan bazituen ere, «azkenean eskaera bidali ginen».

**SOULE**  
hileta artea  
Tlxn: 949 413 444  
949 413 444  
949 413 444

HERBIZKO ETXEN  
IDENTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559542519  
Moulin eta Verrerie  
**SARA**

**ZAGYA**  
EHIZA ETA ARRANTZA  
Restoratu eta puztu 2. Etzenda  
949 413 444 949 413 444

**ARMUA JATEKIA**  
T: 949 209 131  
Zugarramurdi errep. 3 km  
LIZKAZUN

*Maderas*  
**GOMEN**  
Tel: 948 580 645  
Zaldubia industrialdea  
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

**MONTXO OSTATUA**  
Dantzarineatik  
2 km-tara  
**TABAKO-DENDA**  
**ANZAN-BORDA - YRDZVBI**  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

**SARA**

## Azken hiru urte hauetan turismoak ez du goiti egin

Joan den urtean 2007an baino 167 lagun gutiago pasatu ziren Turismo Bulegotik

**Xan HARRIAGUE**

Turismo Bulegoak emandako zenbakien arabera, 2008ko urteak berretsi du 2006az geroztik ez direla turista gehiago etorri Sara aldera. Azken hiru urteak berdintsuak izan dira. Aitzineko urteetan bisitarien kopurua beti handitzen joan zen, baina orain, turismoaren garapena gelditu egin da. 2008an 19.024 lagun errezibitu zituzten Turismo Bulegoan, aitzineko urtean baino zertxobait gutxiago, orduan 19.191 izan baitziren informazio eske joan zirenak.

Turista gehienak agorrilean etortzen di-

ra, eta ondotik uztaila da jende gehien hartzen duen hilabetea, baina bien artean diferentzia pixka bat bada. Agorrilean 2.692 lagun pasa ziren Turismo Bulegotik, eta uztailean 2.006. Buruilean 968 izan ziren, eta apirilean, maiatzean eta eriaroan 700-800 bat.

Beti ere Turismo Bulegoko datuen arabera, alokairuek behera egin dute. Aldiz, bisita gidatuek, izan herrikoak edo izan elizako ezkilara joatekoek, gora egin dute. Halere, Turismo Bulegoak ez du ondorio txarrik atera, haren ustez, beharakada orokorra normala delako, denbo-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Errugbiko jokalaria maillot berriekin

Sarako Izarra Errugbi elkarteke lehen bi taldeak maillot berriekin ari dira aurren, Bereciartuak eta Mayarro anaiek, George eta Jean Mariek eskainirik. Argazkian, ezkerretik hasita lehena eta hirugarrena, Donibane Lohizuneko Le Suisse ostatuko kudeatzaileak dira. Mayarrotarrek babestutako maillotak eman zizkieten Mathieu Brisson –bigarrena– eta Thomas Lastra –laugarrena– jokalariei. Eskuinekaldean dagoena Kristian Etxegarai da, Bereciartuko nagusietariko bat.

ra ezegonkorra izan delako, eta norberaren bakanztetarako dirua murriztu delako.

### Ekaitzaren ondorioak

Ilbeltzaren 24ko ekaitzak ez zuen halako kalterik eragin herrian. Dena den, etxe anitzetan argindarrik gabe egon behar izan zuten bihar munera arte. Haizeak

zuhaitz eder batzuk bota zituen, eta teila batzuk mugitu, baina zauriturik ez zen izan. Zurrubian, berriz, negutegiak hondatu zituen.

### Tripotx jatea otsailaren 14an

Otsailaren 14an, Herriko Kontseiluak bazkaria ordainduko die erretretan diren herritar guztiak. Lur Berri gelan iza-

nen da 12:30etik aitzinera. Izenak heldu den astelehena baino lehen eman behar dira Herriko Etxera deituz.

### Eskolen inauteriak

Hiru eskoletako haurrek goizago hasiko dituzte inauteriak. Otsailaren 13an plazan elkartuko dira 13:30ean moztuazkoen desfilea egiteko.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

## SENPERE

# Martxoaren 26an jakinen da EHLGko presidentaren kontrako auziaren epaia

Elkartasun handia jaso du Berhokoirigoinek

**Franck DOLOSOR**

Martxoaren azken orzeguna arte beha egon beharko da Euskal Herriko Laborantza Ganbara elkartearen kontrako epaia ezagutzeko. Bai nako auzitegiak egun hortan jakiterat emanen du zer neurri hartuko duen batasun horren kontra. Prefetak salaketa eman zuen taldearen kontra eta Pirineo Atlantikoetako laborantza ganbara akusazio partikular gisa agertu da auzian. Beren ustez, EHLG elkar-teak nahasmena sortzen du, eta gainerat, ez du te begi onez ikusten hola-ko talde batek ganbara ofizialaren lan berak egin nahi izatea.

Frantziako legediaren arabera, Michel Berhokoirigoin presidentari urte bateko presondegi zigorra eta 15 000 euroko isuna eman diezaiekete, eta elkar-tea debekatzen ahal da. Urtarrilaren 29an Baionan egin zen kasik 10 oreneko auzian, prokuradoreak ez zuen holarikorik galdegin batasunaren izena aldatzea eskatu baitzuen. Abokatek ezezkoa eman zioten galdeari eta Berhokoirigoin gerokorik gabe uztea galdetu zuten.

Elkartasun kate handia sortu da auziaren inguruan, bi mila bildu baitziren Baionan auziaren egunean. Bertzalde, zazpi mila sustengatzaileen

artean, mota guzietako hautetsiak, ordezkariak eta herritarrak daude: José Bové sindikalista ezaguna, Danielle Miterrand France Liberté fundazio-ko buruzagia, Gérard Onesta eurodiputatufer-dea...

Senpereko hautetsi ainitzek ere elkartasuna erakutsi diote EHLG elkarteari: Christine Bessonart andere auzapezak, auzapez orde gehienek, gehiengoko kontseilari gehientsue- nek eta abertzale taldeko bi ordezkariak.

## Haizete bortitzak

Urtarrilaren 24ko haiz-zeek kalteak eragin zituen herrian. Suhiltzaile-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Inauteriak heldu zaizkigu

Gazteak auzoz auzo eta etxez etxe ibiliko dira egun hauetan. Otsailaren 6an, ortziralarekin, eskoleta-ko ikasleak karrketan barna ibiliko dira eta bihar-ramunean inauterien egun nagusia ospatuko da. 16:30ean San Pantzarren auzia egingen da.

ek 40 bat ateraldi egin behar izan zituzten, batzuk Senperen, eta bertzeak inguruetako suhiltzaileak laguntzeko. Senperen, zuhaitz eta tximini batzuk bota zituen haize zakarrak. Ibarrunen eta Amotzen bizpahiru eguneko argindar mozketak jasan zituzten.

## Mobilizazioak

Urtarrilaren 29an, enple-

gua, zerbitzu publikoa eta erosteko ahalmenaren alde egin zen mobilizazio egunak eragin handia izan zuen Senperen ere. Eskoletako ikasge- la gehienek ez zituzten ateak ireki. Hedabide pu- blikoek ez zituzten be- tiko emankizunak eskai- tan 10 000 manifestari bildu ziren, tartean sen- pertarrak.



**Kaiet  
ANDUEZA GOROSTIZA**

Arantzan, ilbeltzaren 16an



**Kaiet  
ANDUEZA GOROSTIZA**

Arantzan, ilbeltzaren 16an

*Zure begien dizdira eta  
expainetako irria  
beti gurekin egonen dira  
Kaiet maitagarria.*

**ARANTZAKO ESKOLAKO IKASLEAK, GURASOAK  
ETA IRAKASLEAK**



**Iñaki  
AIZPURU IRIBARREN**

Narbarten, 2008ko otsailaren 17an

## I. URTEURRENA

*Argi bat itzali da hemen lurrean  
Berri bat biztu da han zeru ederrean  
Gure oroimenean izanen zara betiko  
Ez agurrik ez adiorik, geroarte baizik.*

## ZURE FAMILIA

Bere aldeko meza otsailaren 22an izanen da,  
Narbarteko Elizan, 11:00etan.



## EZKONTZAK

**Gaizka Almandoz Larralde** eta **Araitz Urrutikoetxea Vacas**, Arantzakoa eta Bilbokoa, ilbeltzaren 24an Arantzan.  
**Manuel Regeira Castro** eta **Taiwo Osa-gie**, Doneztebekoa eta Nigeriakoa, ilbeltzaren 24an Donezteben.  
**Gorka Gomez Montalvo** eta **Patricia Silva Galindo**, Donostiakoa eta Brasilgoa, abenduaren 19an Leitzan.  
**Iñigo Sarobe Santesteban** eta **Amaia Agirre Urtizberrea**, Berakoa eta Hondarribikoa, ilbeltzaren 15ean Beran.



## SORTZEAK

**Leire Aymerik San Julian** (Arrupe), Lesakakoa, urtarrilaren 11n.  
**Naiara Tubon Frantzesena**, Elizondokoa, ilbeltzaren 9an.  
**Eider Urrutia Telletxea**, Arraiozkkoa, ilbeltzaren 13an.  
**Etxahun Ospital Migeltorena**, Erratzukoa, ilbeltzaren 16an.  
**Aimar Trinidad Danboriena**, Elizondokoa, ilbeltzaren 22an.  
**Beñat Subizar Kizpe**, Legasakoa, ilbeltzaren 19an.  
**Maddi Hoyos Eguzkiagirre**, Lesakakoa, ilbeltzaren 12an.  
**Aimar Zubillaga Astibia**, Leitzakoa, ilbeltzaren 14an.  
**Iraide Iriarte Petrirena**, Sunbillakoa, ilbeltzaren 19an.  
**Garaine Iriarte Petrirena**, Sunbillakoa, ilbeltzaren 19an.  
**Eneko Marin Imaz**, Sarakoa, ilbeltzaren 11n.

## HERIOTZAK

**Faustino Bidegain Barbesugi**, Elizondokoa, ilbeltzaren 13an, 79 urte.  
**Patxi Salaberri Bulman**, Oronoz-Mugairikoa, ilbeltzaren 11n, 41 urte.  
**Isabel Uitz Madariaga**, Berakoa, ilbeltzaren 14an, 81 urte.  
**Jose M<sup>a</sup> Elizetxe Lasarte**, Elizondokoa, ilbeltzaren 16an, 20 urte.  
**M<sup>a</sup> Paz Lantz Mikelestorena**, Berakoa, ilbeltzaren 20an, 90 urte.  
**Hilaria Iramuno Elizondo**, Zigakoa, ilbeltzaren 20an, 92 urte.  
**Jose Luis Ponbar Altzuguren**, Berakoa, ilbeltzaren 21ean, 77 urte.  
**Kaiet Andueza Gorostiza**, Arantzakoa, ilbeltzaren 16an, 2 urte.  
**Juan Miguel Opoka Iturria**, Elizondokoa, ilbeltzaren 22an, 63 urte.  
**Jose Perurena Sagastibeltza**, Leitzakoa, ilbeltzaren 22an, 95 urte.  
**Tomas Iratzoki Iriarte**, Berakoa, urtarrilaren 24an, 50 urte.  
**Jean-Luc Sanchez**, Amaiurren, ilbeltzaren 10ean, 54 urte.  
**Francesco Rossi Camagni**, Elizondon, ilbeltzaren 24an, 82 urte.  
**Micaela Garaikoetxea Dainziart**, Amaiurkoa, ilbeltzaren 25ean, 86 urte.  
**Jean Baptiste Lamothe**, Sarakoa, abenduaren 19an.



**Rufina IRIARTE MITXELENA**

Sunbillan, 2007ko otsailaren 25ean

II. URTEURRENA

*Umorez eta alaitsu ibiltzen ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.*

ZURE SEME-ALABA ETA ILOBAK



**Patxi SALABERRI BULMAN**

Ornoz-Mugairin, urtarrilaren 11n, 41 urte zituela

*Hostoak arboletatik erortzen diren bezala joan zinen gure artetik.*

*Gerortik gure bihotzak egunero zure oroitzapenarekin betetzen dira.*

ZURE LAGUNAK



**Patxi SALABERRI BULMAN**

Ornoz-Mugairin, urtarrilaren 11n, 41 urte zituela

*Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziakin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin*

ZURE SENIDE ETA ILOBAK



ARGAZKIA: JOSEBA ZABALTZA

## Iñaki Agirre Apezetxea *Gaztelu* Leitzako erremontista

### Gurutze PIKABEA

Erremontean profesionaletan daratzen 11 urtetan, Iñaki Agirre *Gaztelu* leitzarrak behin bakarrik izan du lehen mailako txapelketa batean aritzeko aukera. Baina gustura dago, eta ez da guttiagorako. Bigarren mailan dabil, eta erremonteko haundien artean aritzea poztekoa da: «bigarren edo hirugarren mailako kirolari batentzat, lehen mailako txapelketa batean parte hartzea lorpen haundia da». Berak izan duen aukera Koteto bezalako kirolari «haundiei» zor omen die. «Kotetok desberdintasun haundia ateratzen du eta aldean markatzen duten erremontistarik gabe, zaila izanen litzateke gu lehen mailan ikustea». Hain zuzen, horixe izanen omen litzateke berriz ilusioa egiten liokeena: «lehen mailako beste txapelketaren batean parte hartzea».

17 urterekin eman zituen *Gaztelu* lehen pilotakadak erremontean, lagun batekin: «Goizuetako laguna erremontean aritzen zen, eta poliki-poliki bera-reen Galarretara joaten hasi nintzen».

Geroztik ehunka partida jokatu ditu. Azken bi urte eta erdian, erraterako,

257 partida jokatu ditu, eta horietatik 131 irabazi (%51). Baina kirolari guztien ametsgaiztoa dena ere ezagutu du Leitzakoak: lesioa. «*Duela zenbait urte belauna hautsi nuen eta lau hilabetez geldirik egon nintzen*». Garai txarrean etorri omen zitzaion gainera lesioa: «*Kotetorekin partida bat jokatzekoa nintzen, eta hiru egun lehenago min hartu nuen*». Orain, ordea, erreperatua dago, arazorik gabe. Dena den, erdi barrezka, pena zerk eragiten dion aitortu digu: «*adinean aurrera goaz! 33 urte izatea ez da 22 izatea bezala*». Baina badu segitzeko asmoa, eta enpresak «*geldi*» erran arte segituko du.

### EGUNEROKOAREN GARRANTZIA

Txapelik gabe, baina lanerako gozoz hasi du urtea leitzarrak. «*Txapel*

«Leitzarrek ez dute askorik segitzen erremontea. Halere txapelketa hau jendeak segitu duela somatu dut, baina hedabideetan agertu delako»

# «Bigarren mailako kirolari batentzat lehen mailan aritzea lorpen haundia da»

- **Duela 11 urte debutatu zuen Iñaki Agirre *Gaztelu* (Leitza, 1975) erremontistak profesionaletan, baina urte horietan guztietan behin baino ez du lortu lehen mailako txapelketa batean aritzeko aukera. Berriki izan da, Agoitz Teilatuak Torneoa.**

- **Koteto Ezkurra aitzinean zuela, finalera ailegatu ziren, eta urtarrilaren 10ean jokatu zuten Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Baina bi tantoko alde aterata, ez zuten txapelik lortu. 38-40 Urrizak eta San Miguelek irabazi zuten.**

- **Finala galdu arren, gustura gelditu zen egindako lanarekin, eta etorkizunera begira, ahal duen arte gogor segitu nahi du lanean.**

*bat irabaztea ederra da, baina egunero egin behar da lan», adierazi digu. Eta horregatik du astea hain okupatua: entrenamenduak, gimnasioa, partidak... «Partida dezente jokatzeko direnez, ez dago asko entrenatu beharrik».*

Frontoi luzean zein motzean, bietan moldatzen da, baina binaka nahiago duela adierazi digu. Bere zein ezaugarri nabarmenduko ote lukeen galdetuta, berriz, «*erregulartasuna*» erantzun digu. Eta hobetu beharrekoa? «*Askok!*», dio irribarrez. «*Sakea eta kolpe gehiago, hanka hobeak...*».

### ERREMONTEA LEITZAN

Dudarik gabe, esku-pilotan izen haundiko herria da Leitza, eta jarraitzaile aunitz dituen. Eta segitzen al dute leitzarrek erremontea? «*Askorik ez*», dio *Gaztelu*. Txapelketa hau jendeak segitu duela somatu du, baina bere hitzetan, «*hedabideetan agertu delako*».

Erremonteari ez zaio esku-pilotari bezainbertzeko tokia egiten. Hala da. Eta komunikabideek zerikusi haundia dute. Alde horretatik, erremontea zabalitzeko «*egiteko asko*» dagoela uste du.



## FUTBOLA

## Beran toki egokirik ez, eta Lesakako futbol-zelaian entrenatzen hasi dira Gure Txokoakoak

Astearte eta ortzegun arratsetan Lesakako Mastegi futbol-zelaia joaten dira

### ttipi-ttapa

Berako Matzada futbol-zelaian argirik ez, eta Agerra auzoko zelaia egoera kaskarrean. Berriz aterabiderik ez, eta halabeharrez, Lesakan entrenatzen hasi dira Berako Gure Txokoako erregional mailako jokalariek. Lesakako Bete Gaztekoekin hitz egin ondoren, Mastegi futbol-zelaia libre dagoeneta hasi dira Gure Txokoakoak Lesakan: astearte eta ortzegunetan 21:00etatik aitzinera. Gure Txokoako zuzen-

daritzak behin baino gehiagotan eskatu omen dio Berako Udalarari arazoak konpon dezan, baina bere horretan segitzen du denak. Orain, Lesakara joanez, Udalak «*eskuak garbituko*» dituen beldur dira.

### EGOERA KASKARRA

Arazoak neguan egiten du okerrera. Izan ere, sasoi honetan lehenago iluntzen du eta Matzadan argirik ez dagoenez, ezin izaten dute han entrenatu. Agerrako futbol-zelaian, be-



ARGAZKIAK: LUIS IRATZOKI

**Berako Gure Txokoak entrenamenduak egiten dituten Agerra auzoko futbol-zelaiaren egoera benetan kaskarra da. Eta Matzadan, berriz, ez dago argirik.**

rriz, zenbaitetan ezinezkoa bihurtu da ba-

loia mugitzea, batez ere, euria egiten duenean

sortzen den lohia delata.

## PILOTA

## Azken txanpan sartu da Errekak antolatutako eskuz binakako txapelketa

Finalak martxoaren 7an jokatuko dira Donezteben

### ttipi-ttapa

Errekak antolatutako Eskuz Binakako Zazpigarren Txapelketa aitzinera segitzen du. Finalak martxoaren 7an jokatuko dira Donezteben, baina otsailaren 1ean eta 4an finalerdi guztiak jokatukoak ziren.

**Benjaminetan**, hila-ren 1ean egitekoak zi-

tuzten finalerdiak: alde batetik, Alberdi eta Balerdi (Azpeitia) Errekako Lana eta Indaren (Doneztebe) kontra aritzekoak ziren eta bertetik, Leonet eta Ugalde (Oiartzun) Umore Onako Apezetxea eta Salaberriaren (Goizueta) kontra.

Segidan, leku berean, **alebin mailako fina-**

lerdiak jokatuko ziren: Zalduendo eta Anduaga (San Miguel, Lizarra), Ayesa eta Iruritarren (Beti Onak, Atarrabia) kontra batetik, eta Arrue eta Gaztañaga (Andoain), Pedroarena eta Ezkironen (Zugarralde, Burlata) kontra, bertetik.

Ondotik, **infantil mailako** finalerdiak jokatuko ziren: Larunbe eta Alduntzin (Burlata), Ugalde eta Zapirainen (Oiartzun) aurka eta Lizarraga eta Tollar (Bi Aizpe, Iruztun), Aurrerako Olano eta Iparragireren (Leitza) kontra.

**Kadete mailako** finalerdiak ere Donezteben jokatukoak ziren: Ijurra eta Lasa (Etxarri Ara-

natz), Errekako Zestau eta Karrionen kontra eta Ariztimuño eta Ulanga (Andoain), Cristobal eta Lizasoren (Añorga) kontra.

**Jubenil mailan** bi multzotan banatu dira parte-hartzaileak eta multzobak jokatuko finalak ere joan den igandean egitekoak ziren Donezteben. A multzoan, Loidi (Añorga) eta Aretxabaleta (Markina), Manterola eta Arzelusen kontra aritzekoak ziren eta B multzoan, Sukia eta Arratibel (Tolosa), Arrieta eta Azpitareren (Hernani) aurka. Multzo bakoitzeko irabazleek final nagusia, bertze kategorietan bezala, martxoaren 7an jokatuko dute.

### SENIOR MAILAKOAK ASTEAZKENEAN

**Bigarren mailako senior kategorian** asteazken honetan, otsailak 4, jokatukoak ziren final-laurdenetako partidak Berako Eztegaran. Finalerdiak, berriz, hurrengo asteazkenean, hilak 11, jokatuko dira Donezteben, 19:00etatik aitzinera.

**Senior elite kategorian** finalerdiak, berriz, otsailaren 4an jokatukoak ziren Donezteben: Otsalo eta Arraztoa (Aurrera Saiaz, Tolosa), Esnal eta Gorrotxategiren (Hernani) kontra eta Gure Txokoako Pikabea eta Otxandorena, Renobales eta Galarraga gipuzkoarren kontra.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### IKASTAROAK

#### ETXALAR

Otsailaren 9tik 20ra, argazkilaritza digitala, erosketak Internet bidez eta planoak eta kaleetako mapak Interneten kontsultatzen ikasteko ikastaroa.

### ZINEMA

#### LEITZA

Otsailaren 6an eta 8an, *Las horas del verano* filma, Olivier Assayas zuzendaria-rena. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.  
Otsailaren 13an eta 15ean, *Gomorra* filma. Zuzendaria: Mateo Garrone. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

### INAUTERIAK

#### ARANTZA

Otsailaren 5tik 7ra inauteriak. Xehetasunak 13. orrian.

#### SALDIAS

Otsailaren 6an eta 7an inauteriak. Xehetasunak 16. orrialdean.

#### ARIZKUN, ERRATZU

Otsailaren 7an Gizakunde Eguna. Xehetasun gehiago 35. orrialdean.

#### SEMPERE

Otsailaren 6an eta 7an inauteriak. Xehetasunak 38. orrialdean.

#### IGANTZI

Otsailaren 13an eta 14an inauteriak. Xehetasunak 12. orrialdean.

#### ARANO

Otsailaren 14an inauteriak. Xehetasunak 31. orrialdean.

#### BAZTAN

Otsailean herrietako inauteriak. Xehetasunak 35. orrian.

## TELEBISTAKO TXOKOA



# Urtebetetzeak, Merkatu Ttikia eta zerbitzuen berri telebistan

## SEINALEA EZ DA BELTZEAN GELDITUKO

Produkzioa eten arren, **Ttipi-Ttapa Telebistaren** seinalea ez da galdu. Eguneko emisiorik ez da izanen, ez albistegi, erreportaje edo elkarrizketarik ere, baina **Ttipi-Ttapa**ren seinalea ez da beltzean ikusiko. Orain arte bezala, urtebetetzeak eta Merkatu Ttikiko iragarkiak eskainiko dira, eta berrikuntza gisa, hainbat zerbitzuen berri ere emanen da: hiletta elizkizunen berriak, abisuak, agenda, autobusen ordutegiak, errepideen egoera... Eguneroko albisteen laburpenak ere idatziz ikusi ahal izanen dira. Musikak eta Xorroxin Irratiaren emankizunak beteko du audioaren atala. Bertzalde, artxi-boan dauden edukiak digitalizatu

eginen dira eta norbaitek interesa badu, noiznahi eskura izanen ditu.

### ESKERRIK ASKO LAGUNTZAGATIK

Prestakuntza lanak lehenagotik hasiak baziren ere, 1998ko ekainaren 15ean hasi zen emititzen **Ttipi-Ttapa Telebistaren** programazioa. Gerortik ibilbide oparoa egin du, alde gozo eta gaziekin, horrelako egitasmoetan normala den bezala. Eta hori aunitzen lanari, laguntzari eta konfidantzari esker izan da. Mila esker, beraz, urte hauetan guztietan laguntza eskaini duzuen udal eta mankomunitate, kolaboratzaile eta laguntzaile, ikusle, herritar eta publizitatea egin duzuen guztiei.

## DISKAK



Zuhaitz okerretan gora noa

### RAFA RUEDA

KAP, 2008

Bere hirugarren lana du Rafa Ruedak *Zuhaitz okerretan gora noa* diskoa. Pop musika da eta gainera letra gehienak ere berak eginak dira. Ahots ezagun ugari ere bildu ditu 10 kantuko diskoan: Unai Iturriaga (*Jira eta buelta*), Kirmen Uribe (*Bizipoza zer den*), Gortzon Barandiaran (*Auzo berriren batean*), John Cale (*Paris 1919*) eta Edorta Jimenezek (*Kolibria*). Ahotsa da ardatz nagusia, batez ere berea, baina bere gitar doinuak ere ezinbertzekoak dira disko honetan. Dena den, musikari lanetan, laguntzaile izan ditu J.T. Lewis bateria-jotzailea, Fernando Saunders baxua, Joseba Iratzoki gitar-jolea eta Jane Scarpantoni biolontxelo-jotzailea. Zeljko McMullanek hondoan utzi dituen soinu testurak ere bere garrantzia dute.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (urtarrilaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 36,00 € (+2,00)

**Zerri gizena**  
0,955€ kilo. (-0,025)

**Zerramak:**  
0,430€ Kg/bizirik. (-0,010)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,31 (+0,03)

**1.koa** 4,01 (+0,03)  
**2.koa** 3,31 (+0,03)

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,41 (+0,03)

**1.koa** 4,11 (+0,03)  
**2.koa** 3,43 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 180,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,10/3,20  
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 5,10/5,90  
8-10 kilokoak: 3,90/4,30

## JAKIN BEHARREKOAK

# Agindar sektorea liberalizatuta, tentuz ibiltzeko eskatu du Irachek

Uztailaren 1etik aitzinera argindarraren merkatua liberalizatuko da

Heldu den uztailaren 1ean sartuko da Argindar Sektorearen Lege berria indarrean eta horren arabera, argindarraren behetentsioko sarearen merkatua liberalizatua geldituko da estatu espainiarrean. Hasiera batean, lege hori urte honetako ilbeltzaren 1ean indarrean sartuko zela iragarri zuen Espainiako Gobernuako Industria Ministerioak, baina azkenean sei hilabete gibelatzea erabaki zuen.

Sektorea liberalizatzearekin batera, tarifa erregulatuak desagertu egingen dira eta horren ordez, argindar konpainiei gehienez kobra dezauketena baino ez zaie finkatuko.

Uztaila bitartean, erabiltzaileek konpainia aukeratzeko denbora izanen dute. Horren harira, Ira-



Argindar enpresak publizitate kanpaina handia egiten ari dira.


che Kontsumitzaileen Elkarteak enpresa kontuz aukeratzeko aholkatu du enpresak publizitate kanpaina handia egiten ari direlako ahalik eta kontsumitzaile gehien biltzeko.

Bertzalde, lege berria indarrean jartzeko gutti gelditzen den honetan, errekklamazioak areago-

tu direla adierazi du Irachek: kontsumitzailearen baimenik gabe konpainiaz aldatu dituzte aunitzetan, hitzezko kontratuak eta idatziak desberdinak izaten ari dira... Kaltetuak batez ere adinekoak omen dira. Maiz komertzialak etxean agertzen omen zaizkie adinekoiei euren eskaintzak eginez.

Egoera horretan, argindar konpainiei informazioa idatziz eskatzeko gomendioa eman du Irachek, eta zorrotz gainbegiratzeko. Horrekin batera, kontratua bera ere idatziz eskatzea garrantzitsua dela dio Kontsumitzaileek Elkarteak, baldintzak zein diren argi azaltzen dituen kontratua, alegia.

## LIBURUAK



Bilbao-New York-Bilbao

**Kirmen URIBE**

ELKAR, 2008

*Bilbao-New York-Bilbao* Loiu-ko (Bizkaia) aireportuan hasi eta JFKn bukatzen den hegazkin bidaia da. Hegaldia-ekin batera, hiru belaunaldiren istorioa kontatzen du idazleak: gerra aitzineko egoera bizi zuten atautxi-amatxiena, gurasoek ezagutu zuten frankismo garaia eta idazlearena. XIX.mendean hasi eta XX.enean akitzen da, gerra aitzineko gizartean hasi eta gizarte modernoan akitzen da. Hauxe da, hain zuzen,

Kirmen Uribe idazle ondarrutarraren azken liburua. Kontagintza-mota ohikoak alde batera utzita, autofikzioaren bidetik jo du bere lehenbiziko eleberri hau idaztean, errealitateko datuak material literario moduan erabiliz, fikzioaren baliabideen bitartez historia ere istorio bihurtuz eta egilea bera bere kontakizunaren objektu bihurtuz. 2008ko abenduan aurkeztu zuen liburua Kirmenek eta oro har, ongi hartua izan da.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### MENDI ATERALDIAK

#### BAZTAN

**Otsailaren 8an**, Aizkolegira mendi ateraldia Baztango Mendigoizaleak-ek antolatuta.

**Otsailaren 15ean**, Alkotzera ateraldia antolatuta du Baztango Mendigoizaleak-ek.

### KONTZERTUAK

#### ERRATZU

**Otsailaren 13an**, Kaleginez taldearen kontzertua ZubiPunta ostatuan. 23:00etatik aitzinera.

#### ELIZONDO

**Otsailaren 14an** Bruesa Arena Cheerleaders Lur dantzalekuan, 01:00etatik aitzinera. Sarrera: 9 euro.

### BERTSO SAIOAK

#### IGANTZI

**Otsailaren 7an**, Nafarroako Bertsolari Txapelketako kanporaketa, Jubilatuen Elkartearen, 17:30ean. Xehetasun gehiago 14. orrialdean.

#### BETELU

**Otsailaren 8an**, Nafarroako Bertsolari Txapelketako kanporaketa, 17:30ean. Xehetasun gehiago 14. orrialdean.

### ERAKUSKETAK

#### LESAKA

**Otsailaren 15era bitarte** *Pedalkadak iraukortasunerantz* izeneko erakusketa Komentuko Elizan. Asteartetik ortziralera: 9:00-14:00; larunbatetan 10:00-14:00 eta 16:00-19:00. Igande eta jai egunetan: 10:00-14:00. Antolatzailea: Lesakako Udala.

00-34 948 63 54 58

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak



**Baztango**  
promocióin inmobiliaria

**ESKARI HAUNDIA IZATEAGATIK  
ERRENTAN HARTZECO PISUAK BEHAR DITUGU  
BAZTAN-BIDASOAN**

**ETXEBITZAK DITUGU SALGAI ETA ERRENTAN EMATEKO  
PISUAK, LOKALAK, TXALETAK, BORDAK, BASERRIAK,  
LUR EREMU URBANIZATU ETA URBANIZAGARRIAK,  
LURZORU INDUSTRIALAK ETA PABILOIAK...**

Tfn. 948 630552      Kattinberri karrika, 4  
Faxa 948 630106      31780 Bera. Navarra

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA,  
ULTZAMA ETA  
IPARRALDEAN.**  
- Pisuak, apartamentuak,  
partzelak, baserriak, bordak,  
lokal komertzialak eta  
nabeak salgai.

**IPARRALDE ETA BIDASOA  
ALDERDIETAN.**  
- Eskaintzagatik baserriak,  
bordak eta lurrak behar  
ditugu.

**ZUGARRAMURDI.**  
- Baserrira salgai 80.000  
metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere  
lurrarekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**NARBARTE.** 70m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Sartzeko prest. 162.000 euro. ☎687 111420.

**LESAKA.** Herri sarreran pisua salgai. 3. solairuan. ☎670 423770.

**IGANTZI.** 90m<sup>2</sup>ko pisua salgai herri sarreran. ☎948 259039.

**ARANTZA.** Pisua bere garajearekin salgai. ☎697 474042.


**LEITZA.** Etxebizitza eta bagera salgai. Bizitzera sartzeko prest. ☎948 510545.

**DONEZTEBE.** Amezitia karrikan duplexa salgai. 3 logela eta 2 komun. ☎607 978656.

**DONEZTEBE.** 2 logelako pisua salgai. 24.000.000 pta. ☎628 725328.

**DONEZTEBE.** Aparan zonaldean pisu berria salgai. 100m<sup>2</sup> eta trastelekua. Prezio merkea. ☎617 461649.

**DONEZTEBE.** Etxe erabat berritua salgai: 2 pisu duplex, lokal komertziala eta lorategi tiki bat. Merkatarien Etorbidea, 27. Ikusi eta prezioaz solastuko gara. Zuzenean nagusiarekin. ☎607 978656.



**BERA.** Duplexa salgai Bidasoa karrikan. Eraberritua. Interesatuak bakarrik. ☎661 577137.

**BERA.** Eztegar pasealekuan pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea. Kanpora begira eta berogailuarekin. ☎600 501881.

### ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman



**BORTZIRIETAKO  
OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN  
MANKOMUNITATEA**

31760 ETXALAR

**LANPOSTU DEIALDIA**

Gizarte langilea hartzeko deialdia, oposizio-lehiaketa bidez eta lan kontratu finkoarekin

2009ko urtarrilaren 23ko  
10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua.

**BERA.** Pisu mobleztatua errentan emateko. ☎948 630270 (deitu eguerdi eta arratsetan).

**ELIZONDO.** Saskaitz plaza pisua errentan emateko. ☎677 688158.

**ARTIKA.** Mobleztatutako atiko-duplexa bi terrazekin errentan emateko. 3 logela eta bi bainugela. Estreinatua gabea. Garaje plaza eta trasteroarekin. Ekonomikoa. ☎636 371991.

**LEGASA.** Pisu berritua errentan emateko. ☎677 089046 (arratsalde).

**LEITZA.** Pisu mobleztatua errentan emateko. ☎606 225251.

**BERA.** Bidasoa karrikan pisua errentan emateko. Mobleztatua. ☎948 630431.

**ELIZONDO.** Guztiz mobleztatutako apartamentua errentan emateko. Inguru lasaia eta berria, herrigunetik hurbil. Igogailua eta berogailua. ☎948 637283.

### ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartu

**ELIZONDO-ELBETE.** Etxebizitza bat errentan hartuko nuke. ☎610 949168.

### GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

**LESAKA.** 53m<sup>2</sup>ko lokal ko-

mertziala salgai edo errentan emateko. Antoiu 29, beheko solairua. ☎679 432522.

**LESAKA.** Albistur karrikan lurrazpiko garajea salgai. ☎618 962937.

### GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

**BERA.** Agerra auzoan garaje bikoitza errentan emateko. ☎943 523784.

### ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak

**BURLATA-IRUÑA.** Tayri higiene-naturista zentroa: ikastaroak asteburuetan=20 euro=nola araztu organismoa halako kasuetan: botikak hartuta, gehiegizko elikadura, alkohola, tabakoa, drogak, alergiak... nola prebenitu: katarro errepikakorrak, otitis, anginak, infekzioak, operazio-ondokoa/aurrekoa edo egonaldia ospitalean. Kiromasajista: osteoartikularra eta zirkulatorioa=9 egunetan=150 euro. ☎948 186907/ 647 156370.

**Fistula arazoak?** Kirurgiari gabe. Naturala. 15 egunetan moldatua. ☎618 628311.

### LANA

### 301 Eskariak

24 urteko **gazte batek** kamioiarekin lan eginen luke. Gida-baimen guztiak dituen. ☎948 451624.

**Odontologiako laguntzaile** gisa edo **diseinu grafikoan** lan eginen nuke. ☎600 092237/948 625791. Berako **emakume euskaldun batek** goizez etxeak garbitzen lan eginen luke. ☎630 972189.

**Geriatria laguntzaile** tituludunak lan eginen luke. Heldu zein ezinduekin eguneroko betebeharreran eta zainketa osorako lan egiteko. Informeak baditu. ☎948 637546.

### LANA 302 Eskaintzak

**DONEZTEBE.** Bixen osatuan sukaldari eta garbitzeta lanetan aritzeko langilea behar da asteburuetan. ☎948 450383.

### MOTORRA 501 Salerosketak

**Kawasaki ZZR 1.100** motorra salgai. Gurpil berriak eta maletarekin. 45.800 km. SS-4911-AJ matrikuladuna. 2.000 euro. ☎646 769186.

**SANTESTEBAN Tailerrak**  
 Renault Clio 1.5 110cv 2007koa + 14.000 km  
 Renault Clio 1.5 110cv 2008koa + 8.000 km  
 Renault Kangoo 1.5 110cv 2007koa + 38.000 km  
 Renault Espace 1.5 110cv 2007koa + 13.000 km  
 Oso II Emotio 1.5 dci 85 cv  
 Kangoo Grand Volumen 1.5 dci  
 Kangoo 1.5 dci  
 Sedan Dynamique 1.5 dci 105 cv  
 Espace Emotio 2.0 dci 130 cv 7 plaza  
 Peugeot 307 1.6 110 cv

### MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**Seat Ibiza 1.400** autoa salgai. Gasolina. Egokia gida-baimena atera berri dutenentzat. 2003koa, parrotarekin eta haize egokituarekin. ☎699 279940.

**Nissan Primera familia-rra 2.0 TD** salgai. 2001ekoa. 125.000 km. Egoera onean. Prezioa: 5.500 euro. ☎616 216049.

**Mercedes Viano Marco Polo** furgoneta salgai. 2006koa. 50.000 km. 150

CV. Extrekin. Egoera onean. ☎670 415720.

**Peugeot 206** autoa salgai. 2002. urtekoa. 70 CV HDI. 3 atekoa. Ongi zaindua. ☎653 047376.

**Gas-gas TXT Pro 2007** trialeko motorra salgai. ☎629 235251.

**Nissan Primera** familiarra 2.0 td salgai, 2001ekoa. 125.000 km. Egoera onean. 5.500 euro. ☎616 216049.

Same antares **traktorea** salgai, 100 VDT, kabinarekin. ☎690 848535.

Bi zaldirendako **erremolke** salgai. la berria. 3.000 euro. ☎680 778328.

**Audi TT 1.8 Quattro** autoa salgai, 225 CV. 87.600

**ARoz - BERRI**  
 948 581 001 (BURDIA) 948 332 617 (ORRIKAIN)  
 Same Tiger 100 DT traktorea palarekin  
 Same Tiger Silver 100 - 6 traktorea  
 Same Explorer 70 SP VDT traktorea  
 John Deere 2400 A-4 WD traktorea  
 New Holland 835 bolak egiteko makina kamara bariabilearekin eta kateekin.  
 GMO 55 Select Segamakina  
 Aguirre goldea, lau disko eta baleztarekin  
 JF AV 505 E ongarri hedatzeko makina (remolkearen basea: 1.90x4.30)

km. Oso egoera onean. 22.000 euro. ☎637 781797.



### ANIMALIAK 602 Salerosketak

**Zerrikume iberikoak** salgai. ☎661 767027.

### DENETARIK 701 Galdu-aurkituak

**ETXALAR.** USB memoria bat agertu da, ttipi-ttapako atean. ☎948 635458.

**Oilagorretako zakurra** galdu da Etxalar eta Bera

artean. *Lurizenekoa*, txuria belarri gorriekin. ☎943 612505.

### DENETARIK 702 Salerosketak

Erakusketa aldaketa dela eta, **sukalde berria** salgai. Hozkailua, plaka, kanpaia, labea, harraska eta Silestone estalkiarekin. 2.950 euro. ☎948 450400 (Amairu Sukaldeak).



Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



**AINHOA MUNARRIZ**  
**BAZTERRETXEAK**  
urtarrilaren 5ean 20 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat!



**MIKEL ZABALA ORMAZABAL**  
leitzarrik ibeltzarren 29an 3 urte bete ditu. Zorionak polit! Hori Leitza eta Hondarribiko familiaren partetik. Muxu asko!




**IKER OSUA CABIDA**  
beratarrik urtarrilaren 20an 5 urte bete ditu. Zorionak etxekoan partetik eta batez ere Aneren partetik. Aupa txapelundun!



**ANE OSUA CABIDA**  
beratarrik otsailaren 3an 9 urte bete ditu. Zorionak etxekoan partetik eta batez ere Ikerren partetik. Aupa parrandera!



**Elizondoko ENAITZ GOÑI**  
**ERAUSKINEK**  
otsailaren 9an 2 urte beteko ditu. Zorionak etxekoan partetik eta muxu haundi bat.



**Lesakako UNAX BEREAU**  
**IRIGOIENK**  
otsailaren 10ean urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat Alaia eta Iraiaren partetik.




**Lesakako UNAX BEREAU IRIGOIENK**  
otsailaren 10ean urtea beteko du. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Lesaka eta Iturengo familiaren partetik.



**Zorionak Etxalarko MANUEL ARANBURURI**, otsailaren 17an urteak beteko dituelako. Animo, bizikleta horrekin kostata irabaziko baituzu karrera!



**MAIDER OLAZIREGI**  
**Beti Gazteko**  
jokalari beratarrik otsailaren 9an 13 urte beteko ditu. Zorionak!



**SARAI BURGETE MIGELENA**  
igan-tziarrik otsailaren 7an urtea beteko du. Zorionak eta muxuak aitaxo, amaxo eta Ainararen partetik.




**Zubietako IRENE VERA**  
**JUANIKO-RENK**  
otsailaren 9an urtea beteko du. Zorionak eta muxu potolo bat gure *beltxari* Aimar eta Mirariren partetik.



**EKHI EZKURRA SANZEK**  
otsailaren 5ean urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat morroxko gurasoen partetik.



**EKHI EZKURRA SANZ**  
etxeko trastoak otsailaren 5ean urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat potolo Leitzako familiaren partetik.



**BEGOÑA SALAZARREK**  
urteak bete ditu otsailaren 2an. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan eta arantzarren partetik.



**Sunbillako OIHAN LUJANBIOK** 3 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**Sunbillako OIHAN LUJANBIOK** 3 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat amatxoren partetik.



**Añorgako NAROA AROZENAK** 6 urte bete ditu urtarrilaren 24an. Zorionak eta 6 muxu potolo zure lehengusu Aialaren partetik.



**Lesakako IZAROK** urtarrilaren 21ean 6 urte bete ditu eta **ONINTEK** otsailaren 17an 2 urte eginen ditu. Zorionak familiaren partetik.



**GOGOR ATXALANDABASO**  
doneztebarrak urteak beteko ditu otsailaren 10ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**Doneztebeko XABIER APEZTEAK**  
urteak beteko ditu otsailaren 20an. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat!



**Aurtizko UXUE MIKEO** eta **IMANOL MARIEZKURRENAK** otsailaren 15ean eta 16an 2 eta 9 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**Iturengo EGOITZ** eta **IKER** anaiak urteak beteko dituzte otsailaren 8an eta 20an. Zorionak familia guztiaren partetik, eta segi argazkian bezain politak izaten!!!



**Anima zaitetz!**  
oso erraza da  
**zoriondu**  
**internet bidez**  
**www.ttipi.net**



Itxi	* F1
Gorde	* F2
Gorde dena	* G
Ezabatu	* E
Berregin	

Bidali lotura postaz

Kopiatu

Itsatsi ▶

Ebaki

Inprimatu

F6

### Atsegin dugu jakitea etorkizuna esku onetan dagoela

Atsegin dugu gure planeta hobetzeko lan egitea. Atsegin dugu ikertzea. Atsegin dugu jakitea etorkizuna aldatzen ahal dela. Eta atsegin dugu jakitea aunitz garela amets hau berbera konpartitzen dugunak. Ilusio honek egunetik egunera hobetzen laguntzen digu, ingurumenarekin arduratsuak diren portaerak geure gain hartzeko dugun konpromiso enpresarialarekin leial izateko eta eraginkortasunez jarduteko geure baliabideak optimizatzeko orduan.

  
**gasNatural**  
 Navarra

[www.gasnatural.com](http://www.gasnatural.com)

# Lurr

otsailak 7 larunbata

## LURDJOTAK

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

otsailak 14 larunbata

## BRUESA ARENA CHEERLEADERS

01:00 9€

otsailak 21 larunbata

## INAUTERIAK

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

otsailak 28 larunbata

## JOSEINA IKUSKIZUN BERRIAREKIN

01:00 9€

ETA MARTXOAN...

# Sata gar 20 URTE

# La Pulquería



BISITA EZAZU  
GURE WEB ORRIA

[LURELIZONDO.COM](http://LURELIZONDO.COM)